



BERDINTASUNERAKO 2/2015 FORU ARAUAREN JARRAIPEN TXOSTENA, 2017





AURKIBIDEA

Orrialdea

1.- AURKEZPENA

5

2.- I. TITULUA: GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAKETA ETA FINANTZAKETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO

8

2.1.- Garatzeko epe jakin bat duten itemak.

2.2.- *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoaren* helburuak eta funtzioak.

2.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako *departamentu-unitateen* funtzioak.

2.4.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako koordinazio eta gizarte-solaskidetzako egiturak.

2.5.- Garatutako itemetarako hurbilketa kuantitatiboa.

2.6.- 2017an egindako jardunik esanguratsuenak eta titulu honetako itemei dagokienez geratzen diren erronkak.

3.- II. TITULUA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO POLITIKAK

20

3.1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko politika publikoen sustapena.

3.2.- Sare eta jardunbide feministen babesa.

3.3.- Sentsibilizazio sozialerako, ezagutzarako eta praktikarako neurrien garapena.

3.4.- Indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren diseinua, koordinazioa eta garapena.

3.5.- Garatutako itemetarako hurbilketa kuantitatiboa.

3.6.- 2017an egindako jardunik esanguratsuenak eta titulu honetako itemei dagokienez geratzen diren erronkak.

4.- III. TITULUA: GENERO-IKUSPEGIA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JARDUERETAN ETA GIPIZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU-SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEN JARDUERETAN INTEGRATZEKO NEURRIAK

33

4.1.- Berdintasunerako Foru Planaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa departamentuetan.

4.2.- Ordezkaritza eta parte-hartze orekatua Foru Aldundiko eremu eta maila guztietako lantaldeetan.

4.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko informazioaren produkzio eta kudeaketa eta barne- zein kanpo-komunikazioa.



4.4.- Genero-ikuspegia txertatuko duten foru-azterlanak eta foru-estatistikak lantzea.

4.5.- Kontratazio publikoan berdintasun-klausulak txertatzea.

4.6.- Diru-laguntzetan berdintasun-klausulak txertatzea.

4.7.- Arau-garapena: generoak foru-arauen aurreproiektuetan, izaera orokorreko xedapenen proiektuetan eta izaera sektorialeko foru-plan estrategikoetan duen eraginari buruzko alde zuzeneko ebaluazio-txostena.

4.8.- Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa: genero-eragina berrikusi, aztertu eta ebaluatzea, urteko onarpenaren aurretik eta ekitaldia amaitu ondoren.

4.9.- Langileen kudeaketa: sarbidea eta hautaketa, sustapena, prestakuntza, ordainsariak, laneko segurtasuna eta osasuna, erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna.

4.10.- Garatutako itemetarako hurbilketa kuantitatiboa.

4.11.- 2017an egindako jardunik esanguratsuenak eta titulu honetako itemei dagokienez geratzen diren erronkak.

5.- IV. TITULUA: BERDINTASUNAREN SUSTAPENA FORU ESKU-HARTZE ESPARRUETAN

47

5.1.- Eremu orokorra: Gobernu ona, Emakumeen ahalduntzea

5.2.- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*

5.3.- Aurre! Foru Plana

5.4.- Garatutako itemetarako hurbilketa kuantitatiboa.

5.5.- 2017an egindako jardunik esanguratsuenak eta titulu honetako itemei dagokienez geratzen diren erronkak.

6.-. XEDAPEN GEHIGARRIAK

55

6.1.- Lehenengo Xedapen Gehigarria: Gipuzkoako Foru Aldundiaren egiturak egokitzea.

6.2.- Bigarren Xedapen Gehigarria: Finantzaketa.

6.3.- Hirugarren Xedapen Gehigarria: Foru Arauaren jarraipena eta ebaluazioa.

6.4.- 2017an egindako jardunik esanguratsuenak eta xedapen gehigarriei dagokienez geratzen diren erronkak.

7.-. ONDORIOAK

59

7.1.- 2017an egindako jardunik esanguratsuenak.

7.2.- Geratzen diren erronkak.



1.- AURKEZPENA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauak, bere **Hirugarren Xedapen Gehigarrian** (“**Foru Arauaren jarraipena eta ebaluazioa**”), bere jarraipena egiteko modua jasotzen du. Bertan, Foru Arauaren betetze, garapen eta aplikazioaren jarraipena egiteko lau puntu daude ezarrita:

- Foru Araua indarrean jarri eta sei hilabeteko epean gehienez, “Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea” sortzea onartuko da.
- Urtero, foru-arau honetan xedatutako neurrien jarraipenari eta egikaritze-mailari buruzko txostena osatuko du *Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak*, eta neurriak proposatuko ditu, foru-arauak erabateko eraginkortasuna izan dezan. Txosten hori Gipuzkoako Foru Aldundiko webgunean argitaratuko da.
- Bost urtez behin, *Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak* foru-arauari buruzko ebaluazio-txosten bat osatuko du, eta *Gipuzkoako Batzar Nagusietara* bidaliko du.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezko baliabide ekonomikoak ezarriko ditu foru-arauaren ebaluazioa egiteko, material aditua den pertsonaleko parte-hartzea bermatuz.

Dokumentu hau **2017ko jarraipenari eta egikaritze-mailari buruzko urteko txostena** da, hau da, Foru Arauaren Hirugarren Xedapen Gehigarriaren bigarren puntuan adierazitako txostena.

2017ko jarraipena egiteko, departamentuen arteko koordinazio-egituretan inplikaturako foru-departamentuetako pertsonak eta *Berdintasunerako Organoak* emandako datu kuantitatiboak eta kualitatiboak bildu eta aztertu dira. Pertsona horiei esker, honako datu-iturri hauek bildu eta aztertu ahal izan dira:

- Foru-departamentuen *Berdintasunerako Plangintza (2017-18-19)*
- Foru-departamentuen *Berdintasunerako Urteko Programazioaren 2017ko Jarraipen Txostena*.
- *Aurre! Foru Planaren 2017ko Jarraipen Txostena*.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak urtean behin egiten duen *Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren* erakunde arteko jarraipena egiteko 2017ko foru-datuak.

2/2015 Foru Araua onartu zenetik landu den bigarren jarraipen-txostena da hau, eta 2015. eta 2016. urteei dagokien **lehen jarraipen-txostenaren egiturari eta orduan erabilitako metodologiari eta aztertutako itemei eutsi zaie**, bi aldien arteko konparazioa egin ahal izan dadin eta bi aldiak foru-arauaren guztizko garapen metatuaren ikuspegi orokorrago eta osatuago batean txertatu ahal izan daitezten.

Horretarako, **jarraipen-txosten honen atalak** bat datoz arauan bertan bildutako kapituluekin. Horrela, beraz, jarraipeneko item eta puntu zehatzak ikuspegi zabalago baten testuinguruan koka



daitezke. Hortaz, lehen atal hau (“AURKEZPENA”) eta azken atala (“ONDORIOAK”) salbuetsita, txosten honen gainerako bost atalak Foru Arauaren atalei dagozkie.

- Bigarren atalean (“Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenak, funtzioak, antolaketa eta finantzaketa emakumeen eta gizonen berdintasunerako”), Foru Arauaren izen bereko I. TITULUAREN jarraipena egiten da.
- Hirugarren atalean (“Emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko politikak”), Foru Arauaren izen bereko II. TITULUAREN jarraipena egiten da.
- Laugarren atalean (“Genero-ikuspegia Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardueretan eta Gipuzkoako lurralde historikoko foru-sektore publikoko entitateen jardueretan integratzeko neurriak”), Foru Arauaren izen bereko III. TITULUAREN jarraipena egiten da.
- Bosgarren atalean (“Berdintasunaren sustapena foru esku-hartze esparruetan”), Foru Arauaren izen bereko IV. TITULUAREN jarraipena egiten da.
- Seigarren atalean (“Xedapen gehigarriak”), Foru Arauaren lau XEDAPEN GEHIGARRIEN jarraipena egiten da.

Adierazitako ataletan ikusiko dugunez, **jarraipena osagai deskribatzaileekin (azalpenezkoekin) eta baloraziozkoekin egin da**, eta eskema berari jarraitzen dio Foru Arauaren titulu guztietan:

- Garatzeko epe jakin bat ezarrita duten itemen jarraipen deskribatzailea; 2017an landu diren ala ez jasotzen da.
- Garatzeko epe jakinik gabe jasotzen diren gainerako itemen jarraipen deskribatzailea; itemen garapen-egoera baloratzen da. Hau da, 2017an landu diren ala ez.
- Hurbilketa kuantitatiboa, 2017an tituluaren kapitulu bakoitzean landutako itemek item guztiak (funtzioak, ekintzak, koordinazio-egiturak eta abar) kontuan hartuta duten ehunekoa zenbatestearen bidez.
- Foru Arauaren titulu bakoitzeko itemen inguruan egindako jardunak esanguratsuenen eta oraindik geratzen diren erronken identifikazioa.

Azkenik, kontuan hartu behar dira **jarraipen-txosten honetan erabilitako oinarritzko kontzeptuei** buruzko alderdi batzuk:

- Berdintasunerako Foru Arauak oso item zabalak eta konplexuak jasotzen dituzenez gero, itemak landu ez diren kasuetan izan ezik, oso zaila da, ezinezkoa ez esateagatik, haien “garapen-maila” finkatzea. Hortaz, “2017an item bat garatu dela” esaten denean, landu dela, garatzen ari dela eta horretan dihardutela ulertu behar da.
- Item jakin batek “garapen egokia” edo “garapen handia” duela esaten denean, zabaltasun, baldintza eta baliabide esanguratsuekin lantzen ari dela ulertu behar da.
- Aitzitik, “hasiera batean edo era sinplean lantzen edo garatzen ari dela” esaten denean, oraindik behar adinako zabaltasun, ibilbide, baldintza edo baliabideekin landu ez dela ulertu behar da.
- Kontzeptu horien bidez, eta item bat lantzea beti gauza positibotzat hartuta, txosten honetan, alde batetik, kapitulu bakoitzeko itemak nola landu edo garatu diren deskribatzen da, eta, bestetik, 2017an kapitulu bakoitzean landutako itemak kontabilizatzen dira, zenbatespen kuantitatiboa egiteko.



Kapitulu bakoitzeko itemen portzentajezko garapenaren **zenbatespen kuantitatiboak** portzentajezko interpretazio orokor orientagarri bat egiteko baliabide metodologikoak dira. Zenbatespen horiek, nolahi ere, alde batetik item bakoitzaren garapenaren (hasierakoaren edo zabalaren) askotariko esanahi eta balioari buruz adierazitakoa, eta bestetik item bakoitzaren edukia, zabalasuna eta emakumeen eta gizonen berdintasunean duen eragina kontuan hartuta ulertu eta ñabartu behar dira.

- Zenbatespen kuantitatibo horiek Foru Arauaren –oro har– eta haren tituluen –bereziki– betetze-mailaren gutxi gorabeherako argazki bat lortzeko balio dute funtsean. Halaber, Foru Arauak aplikatu den urte guztietan izan duen garapen-joera ezagutzeko balio dute.
- Zenbatespen kuantitatibo horien ehunekoa Foru Arauak kapitulu bakoitzean garatzeko jasotako itemen guztizko kopuruan oinarrituta kalkulatu da. Hau da, 2017an landutako funtzioek Foru Arauak kapitulu horretarako jasotzen dituen funtzio guztietan duten ehunekoa dira, funtzio horien garapena osatu den edo etorkizunean garatzen jarraitu behar diren kontuan hartu gabe.
- Azkenik, titulu bakoitzean, 2017ko jarraipenaren hurbilketa kuantitatiboa ez ezik, 2015-2016ko hurbilketa (garapenaren joera ikusi ahal izateko) eta Foru Araua 2015ean onartu zenetik 2017ko abenduaren 31ra arte metatutako garapenaren zenbatespena ere biltzen dira.

Txosten honetan, Foru Arauaren titulu bakoitzaren jarraipenaren barruan, **jarduerarik esanguratsuenak eta geratzen diren erronkak** laburtzen dituen azken atal bat dago jasota. Logikoa denez, laburbildutako alderdiei buruzko informazio gehiago aurki daiteke titulu bakoitzaren laburpenaren aurreko orrialdeetan.

Txostena amaitzeko, ondorioei buruzko azken atal bat dago, eta, bertan, aurreko titulu eta atal guztietako ekintza esanguratsuen eta geratzen diren erronken laburpenak biltzen dira. Azken sintesi horren inguruko informazio zabalagoa Foru Arauaren titulu bakoitzerako egindako jarraipen deskribatzailean kontsulta daiteke.



2.- I. TITULUA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAKETA ETA FINANTZAKETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO

2.1.- Garatzeko epe jakin batekin jasotzen diren titulu honetako itemen jarraipena.

2.1.1.- *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoa.*

2.1.2.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako *departamentu-unitateak.*

2.2-2.4.- Garatzeko epe jakinik gabe jasotzen diren titulu honetako itemen jarraipena.

2.2.- *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoaren funtzioak.*

2.2.1.- 2017an garapen zabal eta egokiarekin jarraitu duten funtzioak.

2.2.2.- 2017an hasierako garapen simple batekin jarraitu duten funtzioak.

2.2.3.- 2017an garatu ez diren funtzioak.

2.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako *departamentu-unitateen* funtzioak.

2.3.1.- 2017an hasierako garapen simple batekin jarraitu duten funtzioak.

2.3.2.- Orain arte lantzen hasi ez diren funtzioak.

2.4.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako koordinazio eta gizarte-solaskidetzako egiturak.

2.4.1.- Departamentuen artean koordinatzeko egitura politiko eta teknikoak.

2.4.2.- Departamentuen barruan koordinatzeko egitura politiko eta teknikoak.

2.4.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gizarte-solaskidetzako egitura.

2.5.- Hurbilketa kuantitatiboa, I. Tituluaren kapitulu bakoitzean garatutako itemen portzentajezko zenbatespenaren bidez.

2.6.- 2017an egindako jardunik esanguratsuenak eta I. Tituluaren kapituluetakako itemei dagokienez geratzen diren errokkak.

2.1.- GARATZEKO EPE JAKIN BAT DUTEN ITEMAK.

Foru Arauaren titulu bakoitzaren jarraipena alderdiei horiekin hasiko da, eta Foru Arauan hori lantzeko epe jakin bat ezartzeak alderdi horien berriarazko lehentasuna ezartzen duela ulertu behar da. Halaber, epe gehienak hiru urtekoak dira, eta 2018an epe horietako asko amaitu egingo dira; horregatik ere bidezkoa da alderdi horien jarraipenarekin hastea.



2.1.1.- Foru Arauak hiru urrats eta epe jakin batzuk ezartzen ditu *Berdintasunerako Organoak* esleitutako funtzio guztiak betetzeko behar dituen baliabideak garatzeko:

- 2016ko jarraipenean jaso zenez, lehen urratsa *Berdintasunerako Organoaren langile-premiei buruzko txosten tekniko* bat egitea zen, organo horrek bere funtzioak bete ahal izan zitzaizkan. Txosten hori, maila teknikoan, Foru Arauak ezarritako sei hilabeteko epean egin zen, eta balidatzea eta funtzio publikora bideratzea geratzen da oraindik.
- Bigarren urrats gisa, Foru Arauak urtebeteko epea ezarri zuen (2016-03-17), aurreko urratsean aipatutako txostena kontuan hartuta, *lanpostuen zerrendan* beharrezkoa zen aldaketa egiteko, baina orain arte (2017-12-31) ezin izan da egin.
- Azkenik, Foru Arauak, atal honen hirugarren eta azken urrats gisa, aurreko urratsean sortutako *lanpostu berriak* araua onartu eta hiru urteko gehieneko epean (2018-03-17) bete behar dela ezartzen du.
- Bestalde, 2/2015 Foru Arauaren 16. artikulua, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen* 17. artikuluari jarraikiz, berdintasun-arloko foru-teknikarien gaikuntza espezifikoa azpimarratzen du. Berariazko prestakuntza-betekizun horiek *Berdintasunerako Organo*ko postu teknikoetan txartatuta daude dagoeneko, *berdintasunerako zerbitzuko buruaren* postuan izan ezik.

2.1.2.- Foru Arauak hiru urrats eta epe jakin batzuk ezartzen ditu *berdintasunerako departamentu-unitateak* eratzeko:

- 2016ko jarraipenean jaso zenez, lehen urratsa Foru Arauak finkatutako epean egin zen (2015-09-17): *foru-departamentuek plantilla-premiei buruzko azterketa* egitea, berdintasunerako *departamentu-unitateak* sortzeko. Departamentu batzuek txosten espezifikoa egin zuten, eta beste batzuek, berriz, departamentuaren premien aurreikuspen orokor bat. Nolanahi ere, departamentu guztien premiei buruzko azterketa egitea eta funtzio publikora bideratzea geratzen da oraindik.
- Bigarren urratsaren barruan, Foru Araua onartu eta urtebeteko gehieneko epea (2016-03-17) ezartzen zen *lanpostuen zerrendan lanpostuak aldatu edo sortzeko*, baina 2016ko jarraipenean jaso zenez, *departamentu-unitateen* lana eta helburuen lorpena gaur egun Aldundian abian dauden berdintasunerako egituretara eramatea erabaki zen.
- 2016ko jarraipenean jaso zenez, hirugarren eta azken urratsa egiteko (sortutako *lanpostu berriak betetzea*) hiru urteko gehieneko epea zegoen, Foru Araua onartu zenetik aurrera zenbatzen hasita (2018-03-17). Aurreko puntuan adierazitakoa kontuan hartuta, 2/2015 Foru Arauan “*departamentu-unitate*” deitutakoen funtzioak 68/2008 Foru Dekretuak eraturako eta abian jarritako “*departamentu barruko unitateetara*” lekualdatu dira epe horretan.

2.2.- **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOAREN HELBURUAK ETA FUNTZIOAK.**



2.2.1.- 2015. eta 2016. urteetan era esanguratsu eta egokian garatu ziren eta 2017an ere zabaltasunez garatu diren helburuak eta funtzioak honako hauek dira:

- Berdintasunerako foru-politikak bultzatu eta koordinatzea, eta haien jarraipena zein ebaluazioa egitea.
- Udal-mailan ustapen-neurriak ezartzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzeko baldintza egokiak sortzeko.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan sare eta praktika feministak indartzeko baldintza egokiak sortzeko babesa bermatzea.
- Gizarte-politikaren arloko funtzioak eta eskumenak esleituta dituen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuarekiko koordinazioa bultzatzea indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren diseinu, jarraipen eta ebaluazioan.
- Herritarrak genero-desberdintasunen inguruan eta berdintasunaren alde sentsibilizatzea.
- Gainerako administrazio publikoekiko solaskidetza eta koordinazioari eustea berdintasunaren arloan.
- Berdintasunaren arloko programazio edo plangintzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eremuko jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoen diseinua zuzentzea.
- Aldundiaren araudiaren eta plan estrategikoen genero-eraginaren alde aurreko ebaluazioaren organo egiaztatzaile gisa jardutea eta aginduzko txostenak egitea.
- Foru-egituretarako berdintasun-arloko berariazko prestakuntza-programak diseinatzea.
- Gipuzkoako udalerrietako teknikarien sareko lana sortu eta sendotzea, udalaz gaindiko beste lan-sare batzuetan egindako lanari jarraikiz.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte-mugimenduaren arteko solaskidetza politikoko guneak sortu eta bultzatzea, eta mugimendu horren barruan egiten den lana sendotzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzea.
- Berdintasunaren aldeko emakumeen asoziazionismoa sendotzeko sustapen-neurriak ezartzea eta emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustatzea.
- Gipuzkoako herritarrak lurraldeko emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoeraren eta berdintasuna sustatzeko beharrezkoak diren neurrien inguruan sentsibilizatzea, diskriminazio anizkoitzeko egoerak kontuan hartuta.
- Beren helburu edo funtzioei dagokienez lurraldearen barruko zein kanpoko emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen lagunduko duten erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzak eta parte-hartzerako harremanak eta bideak ezartzea.
- Berdintasunaren arloan lurraldean, Autonomia Erkidegoan, Estatuan, Europako Erkidegoan eta nazioartean garatzen diren ekimenen jarraipena egitea, eta Gipuzkoako Lurralde Historikorako interesgarritzat hartzen diren ekimeneetan parte hartzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako epaimahai, batzorde eta lantaldeetan parte hartzea.
- Foru Araua eta generoaren esparruan indarrean dauden gainerako araudiak betetzen direla zaintzea.



2.2.2.- 2015-2016an hasi ziren eta 2017an era esanguratsuan zabaldu gabe garatu diren helburuak eta funtzioak honako hauek dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei eta haren mendeko gainerako entitate eta organoei genero-ikuspegia politika, programa eta ekintza guztietan, maila guztietan eta fase guztietan txertatzeko laguntza eta aholkularitza ematea.
- Gizonen eta emakumeen bizitza pertsonala, familia-bizitza eta bizitza profesionala zaindu eta uztartzean erantzunkidetasuna bultzatzeko baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioen sorkuntza eta egokitzea bultzatu eta proposatzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideak baliatzeko aukera bermatzera bideratutako programa eta zerbitzu espezifikoak egokitu eta sor ditzan bultzatu eta proposatzea.
- Berdintasunerako foru-egiturak eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako departamentu-entitateak bultzatu, koordinatu eta aholkatzea, 11. artikuluan deskribatutako funtzioen arabera.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden diskriminazio-egoerak detektatzea, eta egoera horiek desagerrarazteko neurriak diseinatu eta bultzatzea.

2.2.3.- 2017an garatu ez diren helburuak eta funtzioak honako hauek dira:

- Gipuzkoan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta bultzatzea.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udaletan berdintasunerako egitura teknikoak sortzen eta indartzen laguntzea: 2017. urtean puntu hau garatu ez bada ere, urte horren amaieran zenbait bilera egin dira udal batzuekin, eta proposamenak eskatu dira 2018an lantzeko.

2.3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DEPARTAMENTU-UNITATEEN FUNTZIOAK.

2016ko jarraipenean jaso zenez eta dokumentu honen 2.1.2 puntuan gogorarazi denez, *departamentu-entitateak* abian jarri ez direnez gero, *2/2015 Foru Arauan* unitate horiei esleitutako funtzio batzuk departamentuen barruko eta departamentuen arteko koordinaziorako dauden foru-egituren esku geratu ziren inplizituki. Egitura horiek foru-koordinazioaren plangintza zabalago eta orokorrago baten esparruan berrantolatu dira 2017. urtearen amaieran, berdintasunerako foru-politiken zeharkako jarraipenari erantzun homogeen eta global bat emateko.

Prozesu horren ondorioz, emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko koordinazio-egiturak foru-koordinazioko egitura orokor berrietan txertatu dira. Egitura horiek hilean behin biltzen dira, eta Kudeaketa Plan Estrategikoaren eta zeharkako foru-politiken jarraipena egitea dute helburu.



Foru-koordinazioaren egitura egokitzeko prozesu horren ondoren, *departamentu-unitateei* esleitutako eta egungo foru-egiturek beren gain hartutako funtzioen garapenaren 2017ko jarraipenak 2016koaren antzeko egoera bat utzi du agerian. Duela urtebete bezala, honako alderdi hauek egiaztatu dira:

- Funtzio batzuk hasieran edo era sinplean garatzen eta lantzen ari dira 2015. eta 2016. urteez geroztik, eta ez dira erabat garatu kuantitatiboki edo kualitatiboki.
- Egiaztatu denez, koordinazio-egitura orokorrak ez dira nahikoak Foru Arauan aurreikusitako funtzio guztiak betetzeko.

2.3.1.- 2015. eta 2016. urteetan era sinplean eta hasieran garatzen hasi ziren eta 2017an era esanguratsuan zabaldu gabe garatu diren funtzioak honako hauek izan dira:

- Dagokion departamentuko organoei laguntza ematea, eta beharrezkoa bada, departamentu horri atxikitako foru-organismo autonomoetako, enpresa-entitate publikoetako eta merkataritza-sozietateetako organoei entitate horien guztien esparruan gertatzen diren diskriminazio-egoeren arretan, prebentzian, jardunean eta desagerraraztean laguntzea.
- Dagokion departamentuaren eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen arau, politika, programa eta ekintzetan genero-ikuspegiaren integrazioa bultzatzea
- Departamentuan Foru Arauaren betetze-mailaren eta berdintasun-politiken garapenaren jarraipena egitea. Jarraipen horren emaitzen arabera, dauden oztopo eta desberdintasunak desagerrarazteko eta emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko bidezko neurriak proposatuko dituzte.
- Departamentu eskudunarekin *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean* eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen berdintasunerako onartutako plan eta programetan ezarritako xedapenak betetzeko koordinatzea eta lan egitea.
- Departamentuaren kontratu eta diru-laguntzetan eta departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen kontratu eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak bultzatzea, berrikustea eta haien jarraipena egitea.
- Departamentua eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoak, enpresa-entitate publikoak eta merkataritza-sozietateak ordezkatzeko Gipuzkoako Foru Aldundian Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordea eta Talde Teknikoa eta, departamentu bakoitzean, Departamentu barruko Unitateak sortzeko eta osaera zein funtzionamendua arautzeko *irailaren 9ko 68/2008 Foru Dekretuan* (apirilaren 17ko 18/2012 Foru Dekretuaren bidez edota ondorengo aldaketen bidez aldatua) departamentuen artean koordinatzeko aurreikusitako foru-egitura teknikoan.
- *2/2015 Foru Araua* betetzen dela zaintzea.

2.3.2.- Orain arte garatzen hasi ez diren funtzioak eta itemak:

- Dagokion departamentuaren eta departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen barruan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aplikatzen dela zaintzea.
- Eskatzen bazaie, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin lankidetzan jardutea* Foru Arauaren 8. artikuluan aurreikusitako funtzioak betetzeko.



- Foru Arauaren 20. artikuluan aurreikusitako Gipuzkoako Foru Aldundiaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-plana garatzeko, departamentuaren eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen berdintasunerako planak edo programak proposatzea.
- Departamentuaren eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen jarduera-esparruetan ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta bultzatzea.
- Departamentua eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoak, enpresa-entitate publikoak eta merkataritza-sozietateak berdintasun-arloan aholkatzea, garatzen dituzten politika sektorial zehatzei dagokienez.
- Departamentuko langileak eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoetako, enpresa-entitate publikoetako eta merkataritza-sozietateetako langileak berdintasun-arloan aholkatzea, hain zuzen ere genero-eraginaren alde aurreko ebaluazioa egiteko prozesuan eta *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* 19. artikuluetan eta hurrengoetan desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko aurreikusitako neurriak txertatzeko garaian.
- Departamentuko langileei eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoetako, enpresa-entitate publikoetako eta merkataritza-sozietateetako langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza emateko berariazko programak diseinatzea eta haien jarraipena egitea.
- Departamentuaren jarduera-esparruetan, diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak jasotzen dituztela bermatzeko neurriak bultzatu eta proposatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako departamentu barruko egiturak bultzatu eta koordinatzea, hain zuzen ere Foru Arau honen 14. artikuluan aipatzen direnak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egin diren eta egingo diren jardunak bateratu, baloratu eta koordinatzeko.
- Departamentuaren eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen jarduna genero-ikuspegitik aztertzea, Foru Arau honen III. Tituluan aipatzen diren gaien inguruan.
- Departamentuaren eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen jardun-eremuan, emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako epaimahai, batzorde eta lantaldeetan parte hartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiari edo *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu Unitateari* eskatzen zaionean.

2.4.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KOORDINAZIO ETA GIZARTE-SOLASKIDETZAKO EGITURAK

2.4.1.- Departamentuen artean koordinatzeko egitura politiko eta teknikoak

Jarraipen-txosten honen 2.3 atalean aurreratu dugunez, egitura horiek 2017. urtearen amaieran berrantolatu dira, foru-koordinazioaren plangintza zabalago eta orokorrago baten esparruan. Plangintza horren helburua, nolatan ere, Kudeaketa Plan Estrategikoaren zein zeharkako politiken (berdintasun-politika barne) jarraipena egitea da.



Dena dela, 2017. urtearen zatirik handienean eta adierazitako berrantolamendua prestatzen zen bitartean berriazko berdintasun-egiturek abian jarraitu dutenez gero, atal honetan egitura horien jarraipena egingo dugu, eta Foru Aldundiaren koordinazio-egitura berriak 2.6 atalean (ekintzarik esanguratsuenak) landuko ditugu.

la 2017. urte osoan abian jarraitu duten hiru egiturak honako hauek dira:

- *Berdintasun Batzorde Politikoa*; zuzendariez osatutako batzorde bat da, eta *diputatu nagusiaren* zuzendaritzapean biltzen da.
- *Berdintasun Azpibatzerde Politikoa*; departamentu bakoitzean berdintasun-arloa koordinatzen duten zuzendariez osatuta dago, eta *Berdintasunerako Organoko* zuzendari nagusiaren zuzendaritzapean biltzen da.
- *Berdintasunerako Departamentu arteko Talde Teknikoa*; departamentu bakoitzeko idazkari teknikoak eta departamentuko teknikari adituek osatutako taldea da, eta berdintasun-zerbitzuko buruaren zuzendaritzapean biltzen da.

BERDINTASUN BATZORDE POLITIKOAREN funtzioa Foru Aldundiaren berdintasun-politikak koordinatzea da. Horretarako, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko beharrezko gogoeta estrategikoa egiten du, une bakoitzeko foru-lehentasunak adosten ditu eta horiek gauzatzeko erabakiak hartzen ditu.

- *Batzorde Politikoa*, 2016an urtean gutxienez bilera bat egiteko hartutako konpromisoa betez, 2017ko ekainaren 12an bildu zen diputatu nagusiaren zuzendaritzapean.

BERDINTASUN AZPIBATZORDE POLITIKOA *Batzorde Politikoa*ren azpibatzerde operatiboa dela esan daiteke. *Batzorde Politikoa*n parte-hartzaile asko daudenez gero, oso talde ugaria da; *Azpibatzerde Politikoa*, berriz, koordinazio-egitura bat da, eta eraginkorragoa izan daiteke parte-hartzaileen kopuru txikiari esker. Departamentu bakoitzeko zuzendari batek edo bik baino ez dute parte hartzen *Azpibatzerde Politikoa*n, eta beren departamentuko berdintasun-politikak koordinatzeko funtzioa bete behar dute.

Azpibatzerdearen funtzioak honako hauek dira: alde batetik, *Batzorde Politikoa*n adostutako lehentasunak eta hartutako erabakiak bultzatzea eta haien jarraipena egitea, eta, bestetik, beste departamentu batzuekin berdintasunaren inguruan egin beharreko jardueren koordinazioa eta koherentzia sendotzea.

- 2017an, *Azpibatzerde Politikoa* hiru aldiz bildu da, honako egun hauetan: 2017ko ekainaren 21ean, irailaren 25ean eta abenduaren 5ean.

BERDINTASUNERAKO DEPARTAMENTU ARTEKO TALDE TEKNIKOA; alde batetik, berdintasun-politikak koordinatzen ditu departamentuen artean, eta, ildo horretan, sinergiak bilatzen ditu eta koherentzia bermatzen du politiken garapenean. Bestetik, departamentu guztiek erabiltzen dituzten administrazio-prozedurak berdintasunaren ikuspegitik hobetzeko modua aztertzen eta garatzen du.

Bigarren funtzio hori funtsezkoa izan da, besteak beste, foru-departamentu guztiek beren kontratu eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak txertatzeko eta foru-araudiaren genero-eraginaren alde aurreko bidezko ebaluazio-txostenak egiteko.



- 2017an, *Departamentu arteko Talde Teknikoa* lau aldiz bildu da, honako egun hauetan: ekainaren 22an, irailaren 26an, azaroaren 14an eta abenduaren 13an.

2.4.2.- Departamentuen barruan koordinatzeko egitura politiko eta teknikoak.

Departamentuen barruan koordinatzeko egiturak (departamentu bakoitzeko idazkari teknikoak eta zerbitziburuek osatzen dituztenak) oraindik ez dira era esanguratsuan garatu.

2017an egindako jarraipenean ikusi ahal izan denez, egoera joan den urtekoaren antzekoa da.

- Berriz ere, alde handiak ikusi dira departamentu batzuen eta besteen artean egitura horren funtzionamenduari dagokionez. Departamentu batzuetan, egitura horrek sistematikoki eta aldizka funtzionatzen du, beste batzuetan noizean behin, eta beste batzuetan, berriz, oraindik ez da abian jarri.
- Egiaztatu denez, departamentuen barruko egituretako langileen berdintasun-arloko prestakuntzan sakondu beharra dago, departamentuko jardura sistematikoki aztertzeko jarraitu ahal izan dezaten eta gero eta jardun-proposamen zehatzagoak landu ahal izan ditzaten.

2017. urtearen amaieraz geroztik, egitura hori departamentu bakoitzeko DBBa da (*Departamentu Barruko Batzordea*). Egitura hori departamentu bakoitzeko zuzendariak, zerbitziburuek eta idazkari teknikoak osatzen dute, eta 2018. urtearen hasieran jarri da abian. Aurreikusitakoaren arabera, hilean behin bilduko da.

2.4.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gizarte-solaskidetzako egitura

GUNEA mugimendu feministaren eta emakumeen elkarten eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko solaskidetzarako esparrua da. 2014an sortu zenetik, 30 elkarte inguruk parte hartu dute bertan.

2017an egindako jardura zehatzei dagokienez, txosten honen 3.2.2 puntuan informazio zabalagoa dago jasota.

2.5.- GARATUTAKO ITEMETARAKO HURBILKETA KUANTITATIBOA

Hurbilketa kuantitatiboa 2016ko jarraipen-txostenarekin bezala egin da. Hau da, kapitulu bakoitzean era zabal eta egokian edota hasieran eta era sinplean garatu edo landu diren itemen guztizko kopurua hartu da kontuan.

Ehunekoak item bakoitzean alde aurretik emandako datu eta azalpenen zenbatespen kuantitatiboa dira, eta, beraz, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Titulu honetako itemek garapenaren inguruko hainbat esanahi eta balio dituzte alde batetik, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko hainbat eduki, konplexutasun eta eragin bestetik. Izan ere, item batzuk helburu edo funtzio jakin bati dagozkio, eta beste batzuk, berriz, egitura bati.



- Ehunekoa Foru Arauan kapitulu bakoitzean garatzeko jasotako itemen guztizko kopuruan oinarrituta kalkulatu da. Adibidez, *Berdintasunerako Organoaren* kasuan, 2017an betetako 17 funtzioen ehunekoa Foru Arauak *Organo* horretarako jasotzen dituen funtzio guztietan (24 funtzio) oinarrituta kalkulatu da, eta, beraz, % 71 izan da.
- Zenbatetsitako ehunekoak urtean landu diren itemen ehunekoa adierazten du, erabat garatu diren edota etorkizunean ere garatu behar diren kontuan hartu gabe.
- Zenbakizko zutabeetan, 2016ko eta 2017ko jarraipenen hurbilketa kuantitatiboa jasota dago, eta kapitulu bakoitzeko itemen garapenaren joera ikus daiteke. Halaber, azken zutabeetan, Foru Araua 2015ean onartu zenetik 2017ko abenduaren 31ra arte metatutako garapena dago adierazita.

Foru Arauaren I. Tituluari dagokionez, hurbilketa kuantitatiboak honako parametro hauek islatzen ditu:

I. TITULUA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAKETA ETA FINANTZAKETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	ZENBATESPEN Kuantitatiboa					
	2016ko jarraipena 2015-2016an landutako itemak		2017ko jarraipena 2017an landutako itemak		2015-2017an metatua 2015-2017an landutako itemak	
Jarraipen-datuak kapituluz kapitulu	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa;</i> funtzioak: Foru Arauak 24 item edo funtzio jasotzen ditu guztira.	19/24	79	17/24	71	19/24	79
<i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa,</i> langile-baliabideak: Foru Arauak 4 item jasotzen ditu guztira	2/4	50	0/4	0	2/4	50
<i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu Unitateak</i> , langile-baliabideak: Foru Arauak 3 item jasotzen ditu guztira	1/3	33	0/3	0	1/3	33
<i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu Unitateak</i> , funtzioak: Foru Arauak 18 item edo funtzio jasotzen ditu guztira.	7/18	39	7/18	39	7/18	39
<i>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gizarte-solaskidetzako egitura:</i> Foru Arauak 5 item edo egitura jasotzen ditu guztira. Berritasuna 2017an: Gunean egindako prozesua	3,8/5	76	4,5/5	90	4,5/5	90



Zenbatespen kuantitatiboaren bidez, honako alderdi hauek ikus daitezke 2017ko jarraipenean:

- Hobekuntza bat emakumeen eta gizonen berdintasunerako gizarte-solaskidetzako egiturei buruzko kapituluaren 2017ko garapenean eta 2015-2017 aldian metatutakoan, Gunean egindako prozesuari esker.
- *Berdintasunerako Organoko* eta *Departamentu Unitateetako* langile-baliabideei lotutako egitura-alderdiei buruzko kapituluak ez da garatu 2017an, eta, beraz, ez da gehikuntzarik izan 2015-2017 aldian metatutakoan.
- 2017an, beherakada txiki bat izan da *Berdintasunerako Organoaren* funtzioei buruzko kapituluak, eta, horren ondorioz, ez da gehikuntzarik izan *Berdintasunerako Organoaren* funtzioei dagokienez 2015-2017 aldian metatutakoan, 2016an landu ziren (eta 2017an landu ez ziren) bi funtzioengatik: “berdintasuna sustatzeko ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta bultzatzea” eta “udaletan berdintasunerako egitura teknikoak sortzen eta indartzen laguntzea”. Azken puntu horri dagokionez, kontuan hartu behar da 2017. urtearen amaieran hainbat bilera egin direla udal batzuekin, eta proposamenak eskatu direla 2018. urtean lantzeko.

2.6.- 2017AN EGINDAKO JARDUNIK ESANGURATSUENAK ETA TITULU HONETAKO ITEMEI DAGOKIENEZ GERATZEN DIREN ERRONKAK

2017an egindako jardunik esanguratsuen artean, berdintasun-arloko berariazko egiturak koordinazio orokorreko foru-egitura bihurtzeko hasitako aldaketa garrantzitsua azpimarratu behar da, aurreikusitakoaren arabera eragin handia izango baitu Foru Aldundiaren berdintasun-politiken indarrean eta koordinazioan.

Geratzen diren erronkei dagokienez, *Berdintasunerako Organoari* eta *Departamentu Unitateei* dagozkien egitura-alderdiak ez dira neurri handiagoan garatu 2017an, eta Foru Arauak 2018ko martxorako epemuga ezartzen du.

2.6.1.- Departamentu barruko eta departamentuen arteko Foru Aldundiaren koordinazio-egitura berriak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2009an berdintasunerako sortutako berariazko foru-egiturak 2017. urtearen amaieran berrantolatu dira, foru-koordinazioaren plangintza zabalago eta orokorrago baten esparruan eta, aldi berean, zeharkako foru-politikekin –oro har– eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin –bereziki– neurri handiagoan bat etorritz.

Aldaketa horren helburua diputatu nagusiak ezarritako lankidetzaren lan-eredua gauzatzeko da. Eredu horren ardatza Kudeaketa Plan Estrategikoa (2015-2019) da. Plan horretan, zeharkako foru-ildo eta foru-plan guztiak daude txertatuta: euskara, parte-hartzea eta emakumeen eta gizonen berdintasuna.

Halaber, ildo guztiak bultzatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko tresna berriak sortu eta aplikatu dira. Alde batetik, emaitzetara bideratutako aurrekontuak lantzeko eta haien jarraipena egiteko aplikazio bat sortu da, eta, bestetik, ildoan jarraipena egiteko Midenet izeneko aplikazioa. Koordinazio-organo berriak ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren lan-esparru orokor berri horretan kokatuta daude.



Prozesu horren ondorioz, emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko koordinazio-egiturak Foru Aldundiaren koordinazio-egitura orokor berrietan txertatuta geratu dira, hau da, DAB (*Departamentu Arteko Batzordea*) eta DBB (*Departamentu Barruko Batzordea*) batzordeetan. Batzorde horien bileretan, *Berdintasunerako Organoko* arduradunek parte hartzen dute. Bilera horietan, berdintasunerako foru-plangintzaren programazioa eta jarraipena txertatzen dira aldizka eta esplizituki.

Aldaketa horri esker, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken jarraipena koordinazio orokorreko foru-egitura baten barruan egiten da 2017. urteaz geroztik, Kudeaketa Plan Orokorren, Aldundiaren aurrekontuaren eta zeharkako gainerako foru-politiken jarraipenarekin batera.

Horrek, alde batetik, berdintasun-politikek foru-organismo osoan zentraltasun handiagoa izatea dakar, eta aurreikusitakoaren arabera era estrukturalagoan landu ahal izango diren foru-politika guztietan berdintasunaren zeharkakotasun handiagoa lortzeko aukera irekitzen du. Baina, bestalde, berdintasunerako koordinazio-egiturak koordinazio- eta kudeaketa-testuinguru orokorrango batean berrantolatzeak egitura horiek berdintasunarekin zuzenean lotutako edukiei eta pertsonen dagokienez beren berariazotasuna galtzea eta berdintasunean oinarritutako eta berdintasunera bideratutako gogoeta, eztabaida eta lanerako gunen eta denbora esplizituak murriztea dakar.

2.6.2.- Departamentu Unitateen eta Berdintasunerako Organoaren egitura-erronka.

Berdintasunerako Organoaren berrikuspenari eta *Departamentu Unitateei* lotutako egitura-alderdiak Foru Arauaren I. Kapituluaren geratzen diren erronkak dira. Izan ere, Foru Arauak berak egitura horien baliabideak esleitutako funtzioetara egokitzea aurreikusten du (funtzio horietako asko berriak dira, eta berdintasunean berariaz kualifikatutako langileak behar dira betetzeko).

Azkenik, kontuan hartu behar da, jarraipen-txosten honen 2.1 atalean jaso denez, I. Tituluaren egitura-alderdi horiek Foru Araua onartu eta hiru urteko gehieneko epean garatzeko egutegi bati lotuta jaso direla Foru Arauan bertan (adierazitako epea 2018ko martxoan beteko da).

2.6.3.- Foru Arauaren I. Tituluaren jarraipenaren laburpena

Laburbilduz, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

JARDUNIK ESANGURATSUENAK:

→ Hobekuntza bat emakumeen eta gizonen berdintasunerako gizarte-solaskidetzako egiturei lotutako alderdien 2017ko garapenean eta 2015-2017 aldian metatutakoan.

→ Berdintasunerako berariazko egiturak Kudeaketa Plan Estrategikoaren eta zeharkako foru-politiken departamentu barruko eta departamentuen arteko jarraipen-egitura orokor bihurtzea.



GERATZEN DIREN ERRONKAK:

→ 2015ean idatzitako langile-premiei buruzko txostenetan zenbatetsitako premiak txertatzea eta egokitzea, Foru Arauan jasota dauden *Berdintasunerako Organoaren* eta *Departamentu Unitateen* egitura-baliabideei dagokienez (garatzeko hiru urteko epea 2018ko martxoan amaituko da).

→ 2017an landu diren *Berdintasunerako Organoaren* funtzioen kopuruak izan duen beherakada zuzentzea, eta, beraz, datozen urteetan funtzioen garapen metatua areagotzea.



3.-. II. TITULUA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO POLITIKAK

2/2015 Foru Arauak ez du epe zehatzik ezartzen II. Tituluan landutako ezein alderditarako, eta, beraz, atal honen jarraipena egiteko, *2/2015 Foru Arauaren* II. Tituluko 18. artikuluan aipatutako lau jarduera-esparruei, *hurbilketa kuantitatibo zenbatetsiari eta jardunik esanguratsuenen eta geratzen diren erronken laburpenari* jarraitu zaie.

Berariazko berdintasun-politikak direnez gero, jarduera guztien arduraduna *Berdintasunerako Organoa* da funtsean. Ekintzaren batean edo bestean baino ez du lan egin zuzenean inplikaturako beste departamenturen batekin.

3.1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko politika publikoen sustapena.

3.1.1.- Udalerriei laguntza ematea emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko politikak sortu eta finkatzeko eta helburu horretarako udal-tresna arauemaileak ezartzeko.

3.1.2.- Gipuzkoako udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoak babestea.

3.1.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoak sortzen eta indartzen laguntzea, dagokion toki-administrazioko lanpostuen zerrendan ageri diren teknikari espezializatuekin.

3.1.4.- Udalerrri txikiei laguntza ematea emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-politikak garatzeko, bereziki baliabide ekonomikoen eta langile-baliabideen egitura-baldintzei lotutakoak.

3.1.5.- Sareko lankidetzak-espazioak martxan jarri eta garatzea, bai maila politikoan bai maila teknikoan, era horretan, koordinazioa, trukea eta ikaskuntza sustatzeaz gain, udal-eta lurralde-mailan lan-prozesu kolektiboak abian jartzeko.

3.2.- Sare eta jardunbide feministen babesa.

3.2.1.- Gipuzkoako erakunde feministak eta berdintasunerako emakumeen elkarteak indartzea, betiere horien aniztasuna eta horien parte-hartze soziopolitikoko askotariko moduak kontuan hartuta.

3.2.2.- Gipuzkoako mugimendu feministarekin eta berdintasunerako emakumeen elkarteekin solaskidetzak politikoko eta parte-hartzeko espazioa –hain zuzen ere foru-arau honen 15. artikuluan zehaztutakoa– mantendu eta indartzea.

3.2.3.- Gipuzkoako mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek berdintasunaren alde Gipuzkoan abian jarritako proiektu estrategikoei babesa ematea.

3.2.4.- Emakumeen eta ordena heteropatriarkala hausten duten beste pertsona batzuen parte-hartze soziopolitikoak oztokatzen duten aurreiritzien aurkako borroka eta balio-aldaketa sustatzea.

3.2.5.- Erabaki- eta eragin-esparruetan emakumeen sarbidea areagotzen laguntzea.

3.2.6.- Emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzen duten espazio eta prozesuak sortzen eta finkatzen laguntzea, bereziki emakume gazteena eta ahultasun larrienean dauden emakumeena.



3.3.- Sentsibilizazio sozialerako, ezagutzarako eta praktikerako neurrien garapena.

3.3.1.- Gipuzkoan dauden genero-desberdintasunak aztertzea eta horien inguruan sentsibilizazio sozialeko ekintzak abian jartzea, baita berdintasunaren aldekoak ere.

3.3.2.- Sentsibilizazio-ekintzak abian jartzea, genero-erolek eta genero-estereotipoek egungo antolaketa sozioekonomikoaren ereduak daukaten garrantziaz jabetzeko.

3.3.3.- Gazteriarri zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak abian jartzea, aniztasun sexualaren ingurukoak eta ikuspegi feministatik genero-identitateak eraikitzeari buruzkoak.

3.3.4.- Emakume migratzaileen errealitate desberdinak agerian uztea, baita martxan jarritako laguntza-taldeen esparruan garatutako lan kolektiboa ere.

3.3.5.- Ikuspegi transfeministatik, transfobia, lesbofobia, bifobia edo homofobiagatik gizarte-estigmatizazioa eta bazterketa soziopolitikoak jasaten duten pertsonen agerikotasuna eta parte-hartzea areagotzea.

3.3.6.- Gipuzkoako Foru Aldunditik jarduerak garatu eta zuzentzea, transexualitatea patologia-izaeraz gabetzeko, agerikotasun lesbikoa areagotzeko eta bazterketa eta esklusioaren artean dauden elementuen arteko loturak azpimarratzeko.

3.3.7.- Lan sexuala borondatez egiten duten pertsonen agerikotasuna eta parte-hartzea sustatzea, eta horien gizarte-estigmatizazioaren eta bazterketa soziopolitikoaren aurka lan egiten duten kolektiboek laguntza ematea.

3.3.8.- Herritarren artean sentsibilizazio-ekintzak bultzatzea, gizonei eta emakumei esleitzen zaizkien zaintza zein rol edo funtzioen inguruan.

3.3.9.- Hausnarketa eta ezagutza-trukerako prozesuak sustatzea mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarten eta beste kolektibo eta erakunde sozial batzuen, akademiaren eta erakunde publikoen artean, era horretan erakunde publikoetatik beste eredu sozioekonomiko baten definizioa egiteko, bestelako eraikuntza kolektiboa egiteko eta eredu horretarako trantsizioa egiteko, betiere berdintasuna eta pertsonen bizitzaren zaintza oinarritzat hartuta.

3.4.- Indarkeria matxistaren aurkako borrokarako foru-politikaren diseinu, koordinazio, jarraipen eta ebaluazioaren koordinazioa bultzatzea.

3.4.1.- Indarkeria matxistaren aurkako borrokarako antolatutako foru-politikaren diseinu, koordinazio, jarraipen eta ebaluazioaren koordinazioa bultzatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-politikaren esparruan antolatutako gizarte-politikaren arloan Gipuzkoako Foru Aldundian funtzioak eta eskumenak esleituta dituen departamentuarekin.

3.5.- Garatutako alderdietarako hurbilketa kuantitatiboa.

2.6.- 2017an egindako jardunak esanguratsuenak eta titulu honetako itemei dagokienez geratzen diren erronkak

3.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN SUSTAPENA

Tokiko politika publikoen sustapenaren arloan, foru-arauak ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak **bost funtzio hartuko dituela bere gain** gutxienez. Hona hemen 2017an funtzio horien inguruan egindako jarduerak:



3.1.1.- Udalerriei laguntza ematea emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko politikak sortu eta finkatzeko eta helburu horretarako udal-tresna arauemaileak ezartzeko.

2017. urtean alderdi horren inguruan egindako jardunak lurraldeko berdintasun-arloko teknikarien lan-eremuari eta Berdinbidean programari lotuta daude nagusiki. 3.1.5 eta 3.1.4 ataletan, jardun horiei buruzko informazio xehatua ematen da.

3.1.2.- Gipuzkoako udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoak babestea.

2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:

- DIRU-LAGUNTZETARAKO DEIALDIA: 2017an tokiko berdintasun-proiektu estrategikoak garatzeko egindako deialdiaren bitartez, 17 udaleko eta mankomunitate 1eko 32 proiektu babestu dira.

3.1.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoak sortzen eta indartzen laguntzea, dagokion toki-administrazio lanpostuen zerrendan ageri diren teknikari espezializatuekin.

2017. urtearen amaieran, hainbat bilera egin dira udal batzuekin, eta proposamenak eskatu dira funtzio hori 2018. urtean lantzeko.

3.1.4.- Udalerrri txikiei laguntza ematea emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-politikak garatzeko, bereziki baliabide ekonomikoen eta langile-baliabideen egitura-baldintzei lotutakoak.

2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:

- BERDINBIDEAN PROGRAMA: Programa garatzen jarraitu da. Programa Gipuzkoako 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei zuzenduta dago, eta udalerrri horiei beren aukeren eta mugen arabera berdintasun-politikak garatzeko aholkularitza, prestakuntza eta laguntza eskaintzea du helburu.

18 udalerrri eta bi mankomunitatek parte hartu dute, eta haiekin egindako lana bi eduki-arloren inguruan egituratu da:

- o Gazteen arteko indarkeriaren prebentzioa.
- o Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziala.

Horrez gain, prozesua lan egiteko hiru modu osagarriren inguruan antolatu da:

- o Udalerrri parte-hartzaileekin lan egiteko gune kolektiboa.
- o Zuzeneko aholkularitza eta berariazko lan-saioak udal bakoitzeko teknikariek eta politikariek.
- o Udalerrri bakoitzean gazteekin eta emakumeekin egiteko jardun zehatzak.

Azkenik, administrazio-prozedura erkideetan genero-ikuspegia txertatzeko aukera lantzen jarraitu da programan parte hartu duten udaletako idazkariek.



3.1.5.- Sareko lankidetzaz-espazioak martxan jarri eta garatzea, bai maila politikoan bai maila teknikoan, era horretan, koordinazioa, trukea eta ikaskuntza sustatzeaz gain, udal- eta lurralde-mailan lan-prozesu kolektiboak abian jartzeko.

2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:

- **LURRALDEKO BERDINTASUN-ARLOKO TEKNIKARIEN LAN-EREMUA**: lan kolektiboko eremuari jarraitutasuna eman zaio. Bertan, hogeit hamar udalerrri inguru ari dira parte hartzen, berdintasun-arloko langileen bitartez. Udalerrri horiek berdintasunerako politikak garatzeko esparru egonkor bat dute dagoeneko, berdintasun-arloak, plangintza, berariazko aurrekontua eta langile espezializatuak baitituzte.

2017an egindako lanak genero-mainstreamingeko strategiaren garapena izan du ardatz, estrategia hori ezartzeko trebakuntza hobetzea eta, aldi berean, udaletan era praktikoan landutako edukiak aplikatzea helburu duen lan-prozesu baten esparruan.

Bi lan-mintegi egin dira lurraldeko berdintasun-tekniariekin. Bi mintegi horien ardatza emakumeak ahalduentzeko prozesuak izan dira, baina mintegi bakoitza gogoeta-alderdi desberdin eta zehatz batean oinarritu da. Mintegi batean, emakume migratzaileak ahalduentzeko prozesuak landu dira, eta bestean, berriz, prozesu horiek bultzatzeko guneak (eta, zehazkiago, Emakumeen Etxeak).

- **BERDINTASUN-MASTERRAREKIKO HITZARMENA**: Hitzarmen honen bidez, laguntza ekonomikoa ematen zaio masterrari. Masterraren egoitza UPV/EHUko Gipuzkoako campusa da, eta berdintasun-arloko teknikariak prestatzea du helburu.

3.2.- SARE ETA JARDUNBIDE FEMINISTEN BABESA

Sare eta jardunbide feministak babesteko eremuan, foru-arauak ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak **sei funtzio beteko dituela** gutxienez. Hona hemen 2017an funtzio horien inguruan egindako jarduerak:

3.2.1.- Gipuzkoako erakunde feministak eta berdintasunerako emakumeen elkarteak indartzea, betiere horien aniztasuna eta horien parte-hartze soziopolitikoko askotariko moduak kontuan hartuta.

2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:

- **“ALARDEZALEAK”**: Irungo “Alardezaleak” elkarte babestea berdintasunezko alardea antolatu ahal izateko.

3.2.2.- Gipuzkoako mugimendu feministarekin eta berdintasunerako emakumeen elkarteekin solaskidetzaz politikoko eta parte-hartzeko espazioa –hain zuzen ere foru-arau honen 15. artikuluan zehaztutakoa– mantendu eta indartzea.

GUNEA Gipuzkoako mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko solaskidetzarako esparrua da. 2017an, lana honako alderdi hauetan oinarritu da funtsean:



Alde batetik, gunearen funtzionamendu-eredua (2016an berriz definitu zena) testatu da proiektu pilotu gisa, behin betiko funtzionamendu-eredua ezarri ahal izateko.

Eta, bestetik, honako gai hauek landu dira:

- Indarkeria matxistaren arloan, “Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen aitorpena, kalte-ordaina eta eskubideen lehengoratzea”.
- Zainketen arloan, “Bizitza jasagarria: kontziliazioa, erantzunkidetasuna eta zainketak”.

Horretarako, bi lantalde sortu dira, eta talde horiek txosten banatan jasotako proposamen bat landu dute.

Aurreikusitakoaren arabera, 2018. urtearen hasieran txosten horiek ezagutzera emango dira, testatutako funtzionamendu-eredua baloratuko da, eta behin betiko funtzionamendu-eredua ezarriko da.

3.2.3.- Gipuzkoako mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek berdintasunaren alde Gipuzkoan abian jarritako proiektu estrategikoei babesa ematea.

2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:

- DIRU-LAGUNTZETARAKO DEIALDIA: 34 elkarte feminista eta emakumeen elkarterentzako babesa 54 berdintasun-proiektu estrategiko garatzeko, 2017ko diru-laguntzetarako deialdiaren esparruan.

3.2.4.- Emakumeen eta ordena heteropatriarkala hausten duten beste pertsona batzuen parte-hartze soziopolitikoak oztopatzen duten aurreiritzien aurkako borroka eta balio-aldaketa sustatzea.

Ez da ezein jardunik egin 2017. urtean.

3.2.5.- Erabaki- eta eragin-esparruetan emakumeen sarbidea areagotzen laguntzea.

Funtzio hori 2017. urtean hasi da garatzen, *Etorkizuna Eraikiz* programaren esparruan, eta gai hori *Berdintasunari eta Kontziliazioari buruzko GipuzkoaLab* programan egin diren aholkularitza-prozesuetan txertatu da. Programa horrek Gipuzkoako enpresen eremuan esperientzia pilotuak abian jartzean oinarritutako metodologia aplikatu bat bultzatzen du.

3.2.6.- Emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzen duten espazio eta prozesuak sortzen eta finkatzen laguntzea, bereziki emakume gazteena eta ahultasun larrienean dauden emakumeena.

2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:

- DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA: 2017. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Emakumeen Etxearen arteko lankidetzak-hitzarmenarekin jarraitu da.



3.3.- SENTSIBILIZAZIO SOZIALERAKO, EZAGUTZARAKO ETA PRAKTIKARAKO NEURRIEN GARAPENA

Sentsibilizazio sozialerako, ezagutzarako eta praktikarako neurrien eremuan, foru-arauak ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak **bederatzi funtzio beteko dituela** gutxienez: Hona hemen 2017an egindako jarduerak:

3.3.1.- Gipuzkoan dauden genero-desberdintasunak aztertzea eta horien inguruan sentsibilizazio sozialeko ekintzak abian jartzea, baita berdintasunaren aldekoak ere.

2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:

- “BERDINTASUNA ORAIN”: *Berdintasunerako Organoaren* webgunea eguneratu da; webgunea Gipuzkoako gizartean eta sare sozialetan berdintasunaren aldeko kontzientziazio-mezuak zabaltzeko kanala da.
- Gipuzkoako LAN-MERKATUAN ETA ENPRESETAN EMAKUMEEK ETA GIZONEK DUTEN EGOERARI BURUZKO TXOSTENAK landu dira, *Etorkizuna Eraikiz* programaren esparruan. Txosten horiek UPV/EHUko Ekonomia Aplikatuko Sailarekin lankidetzan landu dira: “Genero-desberdintasunak ikasketetan”, “Gipuzkoako familietan kontziliazioa eta berdintasuna sustatzea: Debagoienari buruzko azterketa” eta “Gipuzkoako enpresetan genero-berdintasuna eta kontziliazioa sustatzea”.

3.3.2.- Sentsibilizazio-ekintzak abian jartzea, genero-erolek eta genero-estereotipoek egungo antolaketa sozioekonomikoaren eremuan daukaten garrantziaz jabetzeko.

2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:

- “MARTXOAREN 8A: ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ETA WORLD KAFEA: 2017ko martxoaren 8an egindako adierazpen instituzionala eta ekitaldia. Gizarte-eragile askok parte hartu zuten, eta kontziliazio erantzunkidea izan zuten ardatz.
- “DENOK ZU” KANPAINA: Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko *#DenokZu* sentsibilizazio-kanpaina; kanpaina hori zabaltzeko bisitaldiak egin dira ikastetxeetara, *Goazen*-eko taldeak *#DenokZu* abestia egin du, eta abestia aurkezteko ekitaldia egin da. Kanpainak urte osoan iraun du, eta azaroaren 25ean (Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean) areagotu egin da.

Kanpaina hezkuntza-eremuan oinarritu da, eta Gipuzkoako eskualde guztietako 40 ikastetxe baino gehiago bisitatu dira. Hortaz, Lehen Hezkuntzako 8-12 urteko 2.000 haur ingururengana iritsi da.

Programaren arrakasta dela eta, jarraitutasuna eman zaio 2018an, eta genero-estereotipoei eta zainketa-eremuko erantzunkidetasunari lotutako edukiak zabaltzeko aukera hartu da kontuan.

- KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEARI BURUZKO KANPAINA: komunikabideetan proiektio handia izan duen kontziliazio erantzunkideari buruzko kanpaina, bereziki gizonek zaintzan hartu beharreko erantzunkidetasunean oinarritua.



3.3.3.- Gazteriari zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak abian jartzea, aniztasun sexualaren ingurukoak eta ikuspegi feministatik genero-identitateak eraikitzeari buruzkoak.

2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:

- “BELDUR BARIK”: Gazteen artean indarkeria matxistari aurrea hartzera bideratuta dagoen eta toki-mailan garatzen den *“Beldur Barik”* izeneko erakunde arteko programa babestu eta bultzatzeko lanarekin jarraitu da.

2017an, programaren barruan erakunde bakoitzari esleitutako funtzioen esparruan, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Organoak* programa horren zabalkundea bultzatu du sareen eta *Gazteriako Zuzendaritzarekin* lan egiten duten agenteen bitartez, eta, aldi berean, *“Berdinbidean”* programan parte hartu duten udalekin lan egin da zuzenean.

Guztira, lurralde osoko 101 lan aurkeztu dira. Hala ere, edukietan sakontzen jarraitu behar dela ikusi da, egiten dena jende gaztearen bizi-esperientzietara hurbildutako gogoeta baten emaitza izan dadin.

- *Gazteria Zerbitzuak eta Berdintasunaren Organoak* lehen urratsak egin dituzte gazteekin indarkeria matxistaren prebentzioan batera lan egiteko.

3.3.4.- Emakume migratzaileen errealitate desberdinak agerian uztea, baita martxan jarritako laguntza-taldean esparruan garatutako lan kolektiboa ere.

2017an, hasieran eta era sinplean garatu da funtzio hori. 2017an, honako jardun hauek egin dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azpeitiko Udalak herri horretan (*Emakumeen Txokoan*) abian jarritako “HITZ-AHALDUNTZEA” proiektua. Proiektuaren helburua bertan parte hartzen duten emakume migratzaileak hitzaren bidez ahalduntzea da. Proiektu berri horretan, Aljeria, Pakistan eta Marokoko 28 emakumek parte hartu zuten 2017an. Ekimena *Aurre! Foru Planaren* parte da.

Irakaskuntza-metodo alternatiboa da, eta alfabetatze-prozesuen bidez emakumeen ahalduntzea bultzatzea du helburu. Programak hezkuntza-materialak egokitzen ditu genero-ikuspegiarekin, eta oso kontuan hartzen du ikasleak zer gizarte-testuingurutan bizi diren. Eskolek hitz- eta jolas-izaera handia izan dute beti. Gainera, emakumeen independentzia, sororitatea eta autoestimua sustatzen duen topagunea da.

- “ANIZTASUNEN BIZIKIDETZARAKO FORU PLANA: DISKRIMINAZIO EZA BULTZATZEKO EKINTZAK” izenekoaren esparruan, emakume migratzaileen, eremu urriko etnietakoen eta hainbat erlijiotakoen aniztasuna eta parte-hartzea sustatu da GUNEAN, eta emakume migratzaileen elkarteek lurraldeko udalerrietako berdintasun-arloko teknikariekiko lan-espazioaren esparruan haien jardunetan emakumeen aniztasuna txertatzeko egiten duten lana aurkeztu da.

3.3.5.- Ikuspegi transfeministatik, transfobia, lesbofobia, bifobia edo homofobiagatik gizarte-estigmatizazioa eta bazterketa soziopolitikoak jasaten duten pertsonen agerikotasuna eta parte-hartzea areagotzea.

Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Zuzendaritza hasi da funtzio hori betetzen. 2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:



- “ANIZTASUNEN BIZIKIDETZARAKO FORU PLANA: DISKRIMINAZIO EZA BULTZATZEKO EKINTZAK” izenekoa landu da, eta, aurreikusitakoaren arabera, 2018an onartuko da. Plan horren bidez, Gipuzkoan dagoen aniztasuna utzi nahi da agerian, bai migrazio-mugimendu garaikideen ondoriozkoa, bai gure lurraldeko beste gizarte-bilakaera batzuen eta gure gizarteak generoari, sexu-orientazioari, gaitasunen aniztasunari eta abarri lotuta dituen askotariko ezaugarrien ondoriozkoak.
- 2017ko ekainaren 28an, hots, LGTBI HARROTASUNAREN EGUNEAN, sexu-orientazioari eta/edo genero-identitateari lotutako diskriminazioari buruzko zabalkunde- eta kontzientziazio-jarduera publiko bat egin zen. Zehazki, kaleko pertsonen iritziak panel batean jaso ziren (kalean zegoen edonor hurbil zitekeen bere iritzia idatziz uzteko), “diskriminaziorik eza” kontzeptua agerrarazteko eta giza aniztasuna elkar aberasteko iturria den ideia sustatzeko. Ekitaldia Gipuzkoa Plazan egin zen.

3.3.6.- Gipuzkoako Foru Aldunditik jarduerak garatu eta zuzentzea, transexualitatea patologia-izaeraz gabetzeko, agerikotasun lesbikoa areagotzeko eta bazterketa eta eskusioaren artean dauden elementuen arteko loturak azpimarratzeko.

2017. urtean, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak “ANIZTASUNEN BIZIKIDETZARAKO FORU PLANA: DISKRIMINAZIO EZA BULTZATZEKO EKINTZAK” izenekoa landu du. Foru-plan horren arloetako bat Foru Arauak aipatutako kolektiboari eta haiek patologia-izaeraz gabetzeari lotuta dago.

3.3.7.- Lan sexuala borondatez egiten duten pertsonen agerikotasuna eta parte-hartzea sustatzea, eta horien gizarte-estigmatizazioaren eta bazterketa soziopolitikoaren aurka lan egiten duten kolektiboari laguntza ematea.

Ez da ezein jardunik egin 2017. urtean.

3.3.8.- Herritarren artean sentsibilizazio-ekintzak bultzatzea, gizonei eta emakumei esleitzen zaizkien zaintza zein rol edo funtzioen inguruan.

2017. urtean, honako jardun hauek egin dira:

- KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDERAKO FORU PLANA: *Kontziliazio Erantzunkiderako lehen Foru Plana* onartu da. Plan hori lau lan-ardatzetan oinarrituta landu da: ekonomia, herritarrak, administrazio publikoa eta, azkenik, aurreko hiru lan-ardatzak Gipuzkoako udalerrri batean garatzeko ardatz experimental bat (*HerriLab*).

2017an, planean aurreikusitako sentsibilizazio-ekintza batzuk jarri dira abian, hala nola World kafea eta martxoaren 8an gizonek eta emakumeek zainketei eta etxeke zereginei eskaintzen dieten dedikazio desberdinaren inguruan egindako kanpaina.

Halaber, kontziliazio erantzunkidearen inguruko sentsibilizazio-kanpaina bat egin da *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* onarpenaren eta *Etorkizuna Eraikiz* programaren esparruan.

2018. urterako, plan horretan bildutako ekintzetako asko inplementatzea aurreikusi da.



3.3.9.- Hausnarketa eta ezagutza-trukerako prozesuak sustatzea mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteen eta beste kolektibo eta erakunde sozial batzuen, akademiaren eta erakunde publikoen artean, era horretan erakunde publikoetatik beste eredu sozioekonomiko baten definizioa egiteko, bestelako eraikuntza kolektiboa egiteko eta eredu horretarako trantsizioa egiteko, betiere berdintasuna eta pertsonen bizitzaren zaintza oinarritzat hartuta.

Ez da ezein jardunik egin 2017. urtean.

3.4.- INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO FORU-POLITIKAREN DISEINUA, KOORDINAZIOA ETA GARAPENA.

Indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren eremuan, foru-arauak ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak **funtzio orokor bat beteko duela**. Hona hemen 2017an egindako jarduerak:

3.4.1.- Indarkeria matxistaren aurkako borrokarako antolatutako foru-politikaren diseinu, koordinazio, jarraipen eta ebaluazioaren koordinazioa bultzatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-politikaren esparruan antolatutako gizarte-politikaren arloan Gipuzkoako Foru Aldundian funtzioak eta eskumenak esleituta dituen departamentuarekin.

Aurreikusitakoaren arabera, *Aurre! Foru Planak* indarkeria matxistaren arloko lau eremu landuko ditu: ikerketa, prestakuntza, prebentzioa eta sentsibilizazioa eta arreta.

2017an, atal honen aurreko azpiataletan adierazitako ekintzez gain (Berdinbidean, Gunea, Erantzuteko Protokolo Instituzionala, Denok Zu, Beldur Barik...), honako jardun hauek egin dira:

- ERANTZUN PUBLIKOA EMATEKO PROTOKOLO INSTITUZIONALA LANTZEA ETA PROTOKOLOA AURKEZTEKO EKITALDIA EGITEA: Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erantzun publikoa emateko Protokolo Instituzionala bederatzi udalerrirekin adostuta landu da, eta baterako aurkezpena egin da. Protokolo estandarizatua eta aitzindaria da, eta Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria-kasuen aurrean erantzun tinkoa emateko esparru bat eskaintzeko borondatearekin sortu da. Hainbat erakunderen eta gizarte osoaren artean partekatzeko tresna bat denez gero, Aldundia bera eta herritar guztiak interpelatzeko ditu.
- HAUSNARBIDE: 2017an, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko “Think Tank” gunea zehaztu da. Gune horrek indarkeria matxistaren arrazoen, adierazpenen eta biktimentzako arretaren inguruan baterako hausnarketa egitea, ikerketa-ildoak identifikatzea eta ezagutzan sakontzea ahalbidetu behar du, eta etorkizunean arlo horretako kluster moduko bat izateko ikuspegia izan behar du.
- JARDUNBIDE EGOKIEN BANKUA: indarkeria matxistaren biktimentzako arretaren arloko “Jardunbide egokien bankua” lantzeko prozesua hasi da.
- BATZORDE POLITIKO-TEKNIKOAK: indarkeria matxistaren arloko batzorde politiko-teknikoak bi bilera egin ditu, eta beste hiru lan-bilera egin dira Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritzako teknikarien eta *Berdintasunerako Organoaren* artean, bi zuzendaritza horien artean indarkeria matxistaren arloan beharrezkoa den koordinazioa sendotzeko.



- **NBE-REN GUTXIENEN ARRETA-ESTANDARRAK:** Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako arretari dagokionez, azpimarratu beharra dago NBEren arreta-estandarren (indarkeria jasaten duten emakume eta neskentzako gutxieneko arreta-estandarren) betetze-maila testatzera bideratutako prozesu bat egiteko Emakunderekin burututako lankidetzalana.
- **EMAKUMEEK AURRE EGIN BEHARREKO INDARKERIAREN AURKAKO "AURRE!" FORU PLANAREN URTEKO PROGRAMAZIOA:** Foru-plan hori 2016. urtearen amaieran onartu zen, eta zazpi foru-departamentu inplikatzeko dituzten 17 helburu eta 69 ekintza biltzen ditu.

2017an, foru-departamentuek 57 ekintza programatu zituzten guztira. Horietatik, urtearen barruan 42 ekintza egin ziren (programatutako % 74): 21 ekintza (programatutako % 37) 2017an amaitu ziren, eta beste 21 ekintza 2018an garatzen ari dira oraindik (programatutako % 37).

3.5.- GARATUTAKO ALDERDIETARAKO HURBILKETA KUANTITATIBOA

Ehunekoak titulu honen item bakoitzean alde aurretik emandako datu eta azalpenen zenbatespen kuantitatiboa dira (informazio gehiago 2.5 puntuan).

Ehunekoa Foru Arauan kapitulu bakoitzean garatzeko jasotako itemen guztizko kopuruan oinarrituta kalkulatu da. Adibidez, *"Tokiko politika publikoen sustapenaren"* kasuan, 2017an betetako 4 funtzioen ehuneko *"Sustapen"* horri dagozkion funtzio guztietan (5 funtzio) oinarrituta kalkulatu da, eta, beraz, % 80 izan da.

Foru Arauaren II. Tituluari dagokionez, hurbilketa kuantitatiboak honako parametro hauek islatzen ditu:

II. TITULUA: EMAKUMEEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO POLITIKAK	ZENBATESPEN KUANTITATIBOA					
	2016ko jarraipena 2015-2016an landutako itemak		2017ko jarraipena 2017an landutako itemak		2015-2017an metatua 2015-2017an landutako itemak	
Jarraipen-datuak kapituluz kapituluz	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<i>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko politika publikoen sustapena:</i> Foru Arauak 5 item edo funtzio jasotzen ditu guztira	4/5	80	4/5	80	4/5	80
<i>Sare eta jardunbide feministak:</i> Foru Arauak 6 item edo funtzio jasotzen ditu guztira. 2017ko beritasuna: erabaki- eta eragin-esparruetan emakumeen sarbidea areagotzen laguntzea.	4/6	67	5/6	83	5/6	83



<p><i>Sentsibilizazio sozialerako, ezagutzarako eta praktikarako neurrien garapena: Foru Arauak 9 item edo funtzio jasotzen ditu guztira</i></p> <p>2017ko berritasuna: hiru funtzio berriren abiaraztea. <i>Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren onarpena. Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Plana lantzea</i></p>	4/9	44	7/9	78	7/9	78
<p><i>Indarkeria matxistaren aurkako borrokarako foru-politikaren diseinu, jarraipen eta ebaluazioaren koordinazioa bultzatzea: Aurre! Foru Planak 4 item edo alderdi jasotzen ditu (koordinazioa, diseinua, jarraipena eta ebaluazioa)</i></p> <p>2017ko berritasuna: Aurre! Foru Planeko ekintzak egitea</p>	4/4	100	4/4	100	4/4	100

Zenbatespen kuantitatiboaren bidez, honako alderdi hauek ikus daitezke 2017ko jarraipenean:

- 2017an, gora egin du sentsibilizazio sozialerako, ezagutzarako eta praktikarako neurriei buruzko kapituluaren garapenak, *Kontziliazio Erantzunkiderako I. Foru Plana* onartu izanaren ondorioz.
- 2017an, gora egin du sare eta jardunbide feministei buruzko kapituluaren garapenak, *Etorkizuna Eraikiz* programaren esparruan garatzen den *GipuzkoaLab* programako aholkularitza-prozesuetan emakumeak erabaki- eta eragin-eremuetan sartzeko aukera sustatu izanaren ondorioz.
- Berdintasunerako tokiko politika publikoen sustapenari buruzko kapituluaren garapena 2016koaren antzekoa izan da. Eremu horretan, honako alderdi hauek garatzen hasi gabe daude oraindik:
 - o Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoak sortzen eta indartzen laguntzea, dagokion toki-administrazioko lanpostuen zerrendan ageri diren teknikari espezializatuekin.
 - o Emakumeen eta ordena heteropatriarkala hausten duten beste pertsona batzuen parte-hartze soziopolitikoak oztokatzen duten aurreiritzien aurkako borroka eta balio-aldaketa sustatzea.
- 2017an, aurrera egin da indarkeria matxistaren aurkako foru-politika bultzatu eta koordinatzeari buruzko kapituluaren garapenean, 2016an alderdi guztietan garatu ondoren. 2017an *Aurre! Foru Planeko* ekintza asko abiarazi direnez gero, ikerketak, jardunbide egokien elkartrukeak eta erakundeen arteko koordinazioak gorakada eta hobekuntza bat izan dute.

2.6.- 2017AN EGINDAKO JARDUNIK ESANGURATSUENAK ETA TITULU HONETAKO ITEMEI DAGOKIENEZ GERATZEN DIREN ERRONKAK

2017an egindako jardunik esanguratsuenen artean, azpimarratu beharra dago *Aurre! Foru Planeko* ekintzen inplementazioa eta horrek indarkeria matxistaren aurkako foru-politikan izan



duen zuzeneko eragina, baita II. Tituluaren beste kapitulu batzuetan (berdintasunerako tokiko politika publikoetan, sare eta jardunbide feministetan eta sentsibilizazio sozialean) izan duen eragina ere. Geratzen diren erronkei dagokienez, oraindik garatzen hasi ez diren funtzioak azpimarratu behar dira.

3.6.1.- Aurre! Foru Planaren inplementazioa

Foru-plan hau 2016. urtearen amaieran onartu zen, eta zazpi foru-departamentu inplikatzeko dituzten 17 helburu eta 69 ekintza biltzen ditu.

Foru-departamentuek 45 ekintza programatu zituzten 2017. urterako. Haietatik, 35 ekintza landu dira urtearen barruan (programatutakoen % 78):

- 19 ekintza 2017an amaitu ziren (programatutakoen % 42).
- 16 ekintza 2019an ari dira garatzen oraindik (programatutakoen % 36).
- Programatutako eta hasi gabeko jardunak % 22 dira (10 ekintza).

Gogorazi beharra dago Aurre! Plana beste bi urtetan inplementatuko dela, eta 2017. urtean abiarazi behar zela ekintza kopururik handiena; beraz, ekintza guztiak abian jartzea erronka handia zen.

Berdintasunerako Organoak Aurre! Planeko ekintzak zehazten lagundu die ekintza horiek egiteko ardura duten zerbitzuei 2017an. Horretarako, 16 bilera egin dira Plan horretako ekintzak dituzten zerbitzu guztiekin, eta Planaren *Talde Eragileak* beste 12 bilera egin ditu. Horri esker, elkartzeko, elkar ezagutzeko eta indarkeria matxistaren aurkako foru-politiken ikuspegia bateratzeko guneak sortu ahal izan dira.

2017an, ekintzak zehazteari begira, bilera horien helburua indarkeria matxistaren arloko ekintzak planifikatzea eta ikuspegia bateratzea izan da. 2018rako erronka lanerako gune horiek zerbitzuen premietara egokitzea izango da. *Talde Eragileak*, alde batetik, *Aurre! Plana* gainerako zuzendaritzetara eramaten du, eta, bestetik, *Berdintasunerako Organoaren* berezko ekintzak egiten ditu. Talde horrek, gainera, indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren arloko *Batzorde Politiko-teknikorako* lan-proposamena diseinatu du. *Talde Operatiboa*, bestalde, *Berdintasunerako Organoko* teknikari batez eta kanpoko laguntza batez (berdintasun-arloko bi teknikariz) osatuta dago, eta adierazitako funtzio guztiak uztartzen eta garatzen ditu.

3.6.2.- Hasi gabeko ekintzak

Titulu honetako funtzio batzuk ez dira garatzen hasi oraindik. Logikoa denez, Foru Arauaren garapenak hainbat urtetako prozesu bat eskatzen du, eta prozesu horretan lehenetsiak zehaztu behar dira. Hala ere, ez da ahaztu behar funtzio horiek Foru Arauan jasota daudela, eta datozen urteetan aurre egin beharreko erronka direla.

II. Tituluak 20 funtzio zehazten ditu lehen hiru kapituluetan, eta 4 alderdi orokor laugarren kapitulan. **24 item horietatik, honako 4 hauek ez dira garatzen hasi:**

a) "Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoak sortzen eta indartzen laguntzea, dagokion toki-administratioko lanpostuen zerrendan ageri diren teknikari espezializatuekin". Foru Araua onartu aurretik funtzio hori bete behar zuten berdintasun-arloko udal-teknikariak kontratatzeke zeuden hitzarmenak etenda geratu ziren Foru Araua onartu zenean, funtzio hori betetzeko era egokiago bat aurkitzeko asmoz. 2017an, funtzio hori garatzeko eredurik eraginkorrenak eta norainokorik handienekoak aztertu dira, eta, horretarako, hainbat bilera egin



dira udal batzuekin eta proposamenak eskatu dira funtzioa 2018an landu ahal izateko.

b) “Emakumeen eta ordena heteropatriarkala hausten duten beste pertsona batzuen parte-hartze soziopolitikoak oztopatzen duten aurreiritzien aurkako borroka eta balio-aldaketa sustatzea”.

c) “Lan sexuala borondatez egiten duten pertsonen agerikotasuna eta parte-hartzea sustatzea, eta horien gizarte-estigmatizazioaren eta bazterketa soziopolitikoaren aurka lan egiten duten kolektiboek laguntza ematea”.

d) “Hausnarketa eta ezagutza-trukerako prozesuak sustatzea mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarten eta beste kolektibo eta erakunde sozial batzuen, akademiaren eta erakunde publikoen artean, era horretan erakunde publikoetatik beste eredu sozioekonomiko baten definizioa egiteko, bestelako eraikuntza kolektiboa egiteko eta eredu horretarako trantsizioa egiteko, betiere berdintasuna eta pertsonen bizitzaren zaintza oinarritzat hartuta”.

3.6.3.- Foru Arauaren II. Tituluaren jarraipenaren laburpena

Laburbilduz, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

JARDUN ESANGURATSUAK:

→ Lurraldeko berdintasun-arloko teknikarien lanerako gunean emakumeak ahalduzko prozesuen inguruan egindako mintegiak, bata prozesu horiek bultzatzeko guneak (eta, zehazkiago, Emakumeen Etxeak) buruzkoa, eta bestea emakume etorkinen ahalduzko buruzkoa.
→ Gazteen arteko indarkeriaren prebentzioa eta emakumeen ahalduzkoa Berdinbidean Programaren esparruan.
→ “Alardezaleak” elkarteak, elkarte feministen eta emakumeen elkarten proiektu estrategikoak eta Donostiako Emakumeen Etxea babestea.
→ Kontziliario Erantzukiderako Foru Planeko ekintzak abian jartzea.
→ Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Plana lantzea.
→ <i>Aurre! Foru Plana</i> inplementatzea. 2017an, 69 ekintzetako 35 landu dira, hau da, planeko ekintza guztien % 51. Haietatik, 19 ekintza amaitu dira (planeko guztien % 28), eta gainerako 16ak 2018an ere garatuko dira.
→ Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erantzun publikoa emateko Protokolo Instituzionala, “Denok ZU” kanpaina, “Beldur barik” programa, “Hitz-ahalduzkoa” proiektua, Think Tanka, jardunbide egokien bankua eta NBERen gutxieneko arreta-estandarrak abian jartzea.

GERATZEN DIREN ERRONKAK:

→ II. Tituluko 24 funtzioetatik oraindik hasi ez diren 4ak lantzea (informazio gehiago 3.6.2 atalean).
--



4.- III. TITULUA: GENERO-IKUSPEGIA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JARDUERETAN ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU-SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEN JARDUERETAN INTEGRATZEKO NEURRIAK

Atal honetan, 2/2015 Foru Arauaren III. Tituluan epigrafe berean bildutako kapituluaren jarraipena egingo dugu, eta *Berdintasunerako Organoak* eta foru-departamentuek beren jarduerak genero-ikuspegiari jarraikiz egiteko burututako lanaren laburpen bat emango dugu.

Foru Arauak ez du epe zehatzik ezartzen III. Tituluan landutako ezein alderditarako, eta, beraz, atal honen jarraipena egiteko, Arauan planteatutako neurriei, *zenbatespen kuantitatiboari eta jardunik esanguratsuenen eta geratzen diren erronken laburpenari* jarraitu zaie.

Foru Arauak honako neurri hauek planteatzen ditu foru-jarduerak genero-ikuspegiaren oinarrituta egiteko:

4.1.- *Berdintasunerako Foru Planaren* plangintza, jarraipena eta ebaluazioa departamentuetan.

4.1.1.- 2017ko berdintasunerako programazioa; jarraipena eta ebaluazioa.

4.2.- Ordezkaritza eta parte-hartze orekatua *Foru Aldundiko* eremu eta maila guztietako lantaldeetan.

4.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko informazioaren produkzio eta kudeaketa eta barne- zein kanpo-komunikazioa.

4.3.1.- Webguneak eta sare sozialak.

4.4.- Genero-ikuspegia txertatuko duten foru-azterlanak eta foru-estatistikak lantzea.

4.4.1.- Berdintasun-adierazleak *Emaitzetara Bideratutako Aurrekontua* (EBA) aplikazioan

4.4.2.- Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko berariazko azterlanak

4.5.- Kontratu publikoetan berdintasunari lotutako klausulak txertatzea.

4.6.- Diru-laguntzetan berdintasunari lotutako klausulak txertatzea.

4.7.- Arau-garapena: generoak foru-arauen aurreproiektuetan, izaera orokorreko xedapenen proiektuetan eta izaera sektorialeko foru-plan estrategikoetan duen eraginari buruzko alde aurreko ebaluazio-txostena.

4.8.- Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa: genero-eragina berrikusi, aztertu eta ebaluatzea, urteko aurrekontua onartu aurretik eta aurrekontu-ekitaldia amaitu ondoren.

4.9.- Langileen kudeaketa: sarbidea eta hautaketa; sustapena; prestakuntza; ordainsariak; laneko segurtasuna eta osasuna; kontziliazioa eta erantzunkidetasuna.

4.9.1.- Sarbidea eta hautaketa.

4.9.2.- Berdintasun-arloko prestakuntza.



4.9.3.- Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana.

4.10.- Garatutako alderdietarako hurbilketa kuantitatiboa.

4.11.- 2017an egindako jardunik esanguratsuenak eta titulu honetako itemei dagokienez geratzen diren erronkak.

4.1.- BERDINTASUNERAKO FORU PLANAREN PLANGINTZA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA DEPARTAMENTUETAN.

Foru Arauan xedatutakoari jarraikiz, 2016. urtean landu zen eta gaur egun indarrean dagoen Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Berdintasunerako 2017-2019ko plangintzaren* plangintza, jarraipena eta urteko ebaluzioa egin dira 2017an.

2017-2019ko Plangintza Aurre! Foru Plan berrian, Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plan Berrian eta Berdintasunerako II. Foru Planaren egokitzean oinarrituta landu zen, legegintzaldi hau amaitu arte berdintasunerako plangintza bakarra egituratzeko.

2017an, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak arlo eta programa guztiak kudeatzeko garatutako tresna orokor berriak baliatu dira: EBA (programaziorako) eta MIDENET (jarraipenerako).

Berdintasunerako Organoak idatzitako urteko txostenak eskuragarri daudela kontuan hartuta, laburpen txiki bat baino ez dugu emango, egindako lanaren berri emateko eta lortutako emaitzen ikuspegi orokor bat eskaintzeko.

4.1.1.- 2017ko berdintasunerako programazioa; jarraipena eta ebaluzioa.

Ekintzak: 2017an, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 197 ekintza programatu ziren guztira. Programatutako ekintza horietatik:

- 173 ekintza egin dira (programatutako ekintzen % 88). Haietatik, 142 amaitu dira, eta gainerako 31k 2018an ere garatuko dira.
- Programatutako 21 ekintza hasi ere ez dira egin (programatutakoen % 11). Eta ez da jaso programatutako 3 ekintzaren (programatutako guztien % 1en) jarraipenari buruzko informazioa.

Foru Planak: 2017an, honako ekintza hauek programatu eta landu ziren Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintza osatzen duten hiru foru-planetako bakoitzean:

- *Aurre! Foru Plana:* 45 ekintza programatu ziren. Haietatik, 35 egin dira (programatutakoen % 78). Haietatik, 19 amaitu dira, eta gainerako 16ak 2018an ere garatuko dira.
- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana:* Plana 2017an onartu zenez gero, 5 ekintza baino ez ziren programatu. Haietatik, 5ak egin dira (programatutakoen % 100). Haietatik, 4 amaitu dira, eta gainerakoa 2018an ere garatuko da.
- *Eremu Orokorra (Gobernu Ona eta Emakumeen ahalduntzea):* 123 ekintza programatu ziren. Haietatik, 116 egin dira (programatutakoen % 94). Haietatik, 107 amaitu dira, eta gainerako 9ak 2018an ere garatuko dira.



4.2.- ORDEZKARITZA ETA PARTE-HARTZE OREKATUA FORU ALDUNDIKO EREMU ETA MAILA GUZTIETAKO LANTALDEETAN.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluari jarraikiz, lau pertsonak baino gehiagok parte hartzen dutenean eta bi sexuek gutxienez % 40ko ordezkariak dutenean ulertzen da ordezkariak eta parte-hartze orekatua dagoela.

Gipuzkoako Foru Aldundian, **kide anitzeko 8 zuzendaritza-organo daude, eta, haietatik, 7tan orekatua da** bi sexuen **ordezkariak eta parte-hartzea**.

Bestalde, ordezkariak eta parte-hartze orekatua bermatzeko **klausulak txertatu dira** Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako edo diruz lagundutako sariak emateko, kultura-ondasunak eskuratzeko eta abarretarako 2017an deitutako **33 epaimahai edo antzeko organoetako 19tan**. Horren ondorioz, **20 epaimahai edo antzeko organok dute ordezkariak orekatua**.

Azpinarratu beharra dago, halaber, emakumeen eta gizonen **berdintasunera berariaz zuzendu gabeko parte-hartze edo kontsultako 6 kontseiluk edo organok** ordezkariak orekaturako klausula bat txertatu dutela beren erregulazioan 2017. urtean.

Azkenik, 2017an langileak hautatzeko egindako prozesuetarako osatutako 12 hautaketa-mahaietatik, **11 mahaik** emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua zuten, haietako 10ek parte-hartze paritarioa baldintzatu eta bermatzen zuen klausula bat zutelako. Horrek agerian utzi ditu Gipuzkoako Foru Aldundian berdintasun-klausulen erabileran eta sistematizazioan egindako aurrerapena eta lortutako emaitzak

4.3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALDEKO INFORMAZIOAREN PRODUKZIO ETA KUDEAKETA ETA BARNE- ZEIN KANPO-KOMUNIKAZIOA.

Foru Arauaren betetzea barne-komunikazio zein kanpo-komunikazio guztien produkzioan islatu da; izan ere:

- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egiten da.
- Emakumeen irudi anakroniko eta estereotipatuaren transmisioa saihestu eta prebenitzen da, baita sexu bat bestearen gainetik edo azpitik dagoen ideian oinarritutako adierazpen ororena ere.
- Erakundeen komunikazioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta baliokidea sustatzen da.
- Indarkeria matxistaren aurrean gizarte- eta erakunde-arbuioa areagotu eta sustatu egiten da bidea ematen duten komunikazio guztietan.

Hala ere, oraindik ez da landu 2/2015 Foru Arauak ezartzen duen **berdintasunerako berariazko barne-araudirik** azaldutako guztia islatu eta bermatzeko. Edonola ere, 2017an foru-komunikazioaren liburu zuria landu da, eta hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko atal bat txertatu da bertan.



Foru Arauak eremu horretan ezartzen duenez, “herritarrek eskubidea izango dute Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzeko komunikazioan, informazioan eta publizitatean emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa bete dadila, eta horretarako **erregelamendu bidez garatuko den bide bat** izango dute”. Erregelamendu-bide hori ez da garatu orain arte.

Bestalde, 2017an, orokortu eta sistematizatu egin dira Foru Aldundiaren kontratu eta diru-laguntzetan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista bultzatzeko berdintasun-klausulak, Foru Arauak “Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-sektore publikoa osatzen duten entitateek eskainitako **kontratuen esleipendun diren pertsona fisiko eta juridikoei**” dagokienez eskatutakoa betetzeko.

4.3.1.- Webguneak eta sare sozialak:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren webguneari dagokionez, aipatu beharra dago emakumeen eta gizonen berdintasunari berriaz lotutako albisteek eta komunikazioek gora egin dutela atal honetan.

2017. urtean, #OrainBerdintasuna etiketa eta “Berdintasuna orain” webgunea erabili dira emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko informazioa barneko zein kanpoko komunikazioen bidez zabaltzeko.

Hona hemen 2017an etiketa eta webgune horietan bildutako gai eta titulu batzuk:

- Indarkeria matxistaren aurkako protokolo instituzional aitzindari bat aurkeztu du Aldundiak: Foru Aldundiak lurraldeko hainbat eragilerekin eta 9 udalekin kontrastatu du ekimena, lanabes partekatu honetara atxiki daitezten.
- Gipuzkoak, aho batez eta “DenokZu” lemapean, indarkeria matxista gaitzetsi du: Aldundiak, Batzar Nagusiek eta udalek elkarretaratzea egin dute emakumeen aurkako indarkeria salatu eta hauei babesa adierazteko.
- 600 hurrek “DenokZu” kantua abestu eta dantzatu dute indarkeria matxistaren aurka: Aldundiak eta Go!azenek kantu bat eta bideo klip bat egin dituzte gaztetxoei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainaren barruan.
- Aldundiak DenokZu sentsibilizazio-kanpaina landu du 9-12 urte bitarteko Gipuzkoako 2.000 ikaslerekin: Berdintasuneko zuzendariak azpimarratu duenez, “hezkidetza tresna estrategikoa da indarkeria matxistarekin amaitzeko eta berdintasuna lortzeko”.
- Gipuzkoak aurrekontuetan genero-ikuspegia integratzeko eredu berria aurkeztu dio Europari: Gipuzkoako Foru Aldundiak Berdintasunerako Europar Institutuak antolatutako adituen bilera batean parte hartu du Bonnen, Alemanian.
- META kanpaina parte hartzen duen ekimen batek jasan dituen eraso homofoboan gaitzespena: Agerian da lanean jarraitu behar dela gizarte bidezkoago eta berdinzaleagoa lortzeko.
- Biolentzia matxista eta erantzunkidetasuna, alorreko adituen eskutik, aztergai izan dute GUNEAn: Bizitza jasangarria: Kontziliazioa, Erantzunkidetasuna eta Zaintzak izenburupean antolatu du *Berdintasunerako Organoak* gaur ziklo honetako bigarren hitzaldia.
- Berdintasunean erreferente den NBEko aditu batekin partekatu du *Etorkizuna Eraikiz Aldundiak*: Fiza Farhan pakistandarrarekin lan-bilera egin du foru-erakundeak; topaketa berean ASPEGIko 30 emakume enpresarik ere hartu dute parte.



- Etorkizuna Eraikiz, emakumezkoen kirola eraldatuko duen proiektu aitzindaria: Markel Olano diputatu nagusia Bera Bera klubean egon da, eta bertatik bertara ezagutu du *Etorkizuna Eraikiz* ekimenaren barruan berdintasuna sustatzeko garatzen ari den esperientzia pilotua.
- 2.000 lagun baino gehiagok parte hartuko dute Aldundiak sustatutako kontziliazio-proiektuetan: Markel Olano diputatu nagusiak *Etorkizuna Eraikiz* egitasmoaren baitan berdintasuna sustatzeko 20 esperientzia pilotuetako bat bisitatu du gaur.
- Abian da INSPIRA proiektuaren bigarren edizioa, nesken artean bokazio teknologikoa sustatzera bideratua: Proiektua Deustuko Unibertsitateak sustatu du, Elhuyarren eta Innobasqueren laguntzaz, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin.
- “Kontziliazioa sustatzea ezinbestekoa da lurraldearen garapen eta lehiakortasunerako”: Diputatu nagusiak ALCAD enpresa bisitatu du, langileen ongizatea lantzen duten 20 esperientzia pilotuetako bat baita *Etorkizuna Eraikiz* proiektuaren barruan.
- Aldundiak DenokZu sentsibilizazio-kanpaina zabaldu nahi du Gipuzkoako udalen eskutik: Markel Olano diputatu nagusiak azpimarratu du indarkeria matxistaren aurrean gizarte guztiaren inplikazioa ezinbestekoa dela.
- Kontziliazioa, belaunaldi arteko erronka: Miren Elgarresta, Gipuzkoako Foru Aldundiko *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko* zuzendaria.
- “Kontziliazio erantzunkiderako planaren eraginez Europan buru izango gara berdintasun-arloan”: Aldundiak lehen *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana* aurkeztu du “etorkizuneko erronka ekonomikoei eta sozialei erantzuteko”.
- Gipuzkoako Aldundiak Thomson Reuters Fundazioarekin partekatzen ditu Gipuzkoaren etorkizuneko erronkak: Gobernantza Berria eta Kontziliazioa bultzatzeko lanetan aritu dira *Etorkizuna Eraikiz* ekimenaren esparruan.
- GUNEAK Gipuzkoan genero-indarkeriarekin bukatu eta bizitza jasangarria sustatzeko lan egingo du: Gipuzkoako ia hirurogei emakumek parte hartu dute GUNEA proiektu pilotuko espazio komunaren lehen bileran.
- Olano: “Partaidetza eta kontziliazioan esperientzia arrakastatsuak izatea funtsezkoa da Gipuzkoaren etorkizuna eraikitzeko”: *Etorkizuna Eraikiz* programaren baitan, langileen partaidetza eta kontziliazioa bultzatzeko esperientzia pilotuetan parte hartzen ari diren 20 enpresak elkartu ditu Aldundiak.
- Aldundiak partaidetzako esperientzia pilotu bat aktibatu du Gipuzkoan berdintasunari buruzko eztabaida bultzatzeko: Espazio berri horretan, online plataforma berritzaile bat sartu da, partaidetza-espazioa Gipuzkoako emakume guztien eskura egon dadin.
- Aldundiak 550.000 bideratuko ditu emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzera: Deialdi berriak indarkeria matxistaren aurkako proiektuak eta kontziliazioa eta ardura partekatua sustatzen dituzten proiektuak lehenesten ditu.
- “Gipuzkoa aitzindaria eta eredugarria da berdintasunari eta kontziliazioari buruzko politika eta proiektuetan”: *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoko* zuzendariak Madrilan azaldu ditu *Etorkizuna Eraikiz-en* ildo eta proiektuak.
- MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA: ERAKUNDE-ADIERAZPENA
- Gizarte zibileko 120 ordezkari kontziliazio partekatuen gakoan bila jardun dute: Markel Olano: “Topaketa hau politika egiteko dugun ikuspegiaren isla da, beti gipuzkoarren eskutik”.



- Emakume eta gizonen arteko ardura partekatuan egingo du indar Aldundiak: Emakumeen nazioarteko egunarekin bat kontziliazioa hobetzeko ardura partekatuan aurrera egiteko kanpaina aurkeztu da.
- “Kontziliazioa gizonen eta emakumeen ardura izatea nahi dugu, ez bakarrik emakumeena”: Olano: “Gipuzkoa berdintasun-politiken buruan kokatuko duen bateratze-plana prestatzeko aholkularitza onena lortu nahi dugu”.

4.4.- GENERO-IKUSPEGIA TXERTATUKO DUTEN FORU-AZTERLANAK ETA FORU-ESTATISTIKAK LANTZEA.

2017an, sexuaren aldagaia sartu da Gipuzkoako Foru aldundiaren datu-bilketa eta estatistika ugaritan. Hala ere, ez da gauza bera gertatu departamentuen berriazko programa guztietan. Kasu horietan, sexuen arabera banatutako daturik ez izateak zaildu egiten du departamentuen jardun horien genero-eragina ebaluatzea. Geratzen den erronka sexu-aldagaia departamentu-jarduera osoan txertatzea da, departamentuen politikak genero-ikuspegiarekin aztertu, programatu eta ebaluatzeko aukera emango duten datuak lor daitezzen.

4.4.1.- Berdintasunerako Foru Plangintzaren adierazleak Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuetan (EBA)

2017an, EBA (emaitzetara bideratutako aurrekontuak) aplikazio informatikoa erabili da foru-kudeaketan. Foru-aplikazio horrek berdintasunerako foru-plangintzaren adierazleak biltzen ditu. Adierazle horiek automatikoki esleitzen zaizkie aurrekontu-ekintzei, ekintza horien eta berdintasunerako foru-plangintzako ekintzen artean ezartzen diren erlazioen arabera.

4.4.2.- Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko berriazko azterlanak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegian oinarritutako azterlanei dagokienez, honako hauek azpimarra daitezke:

- “Emakumeen eta gizonen desberdintasun sozioekonomikoak Gipuzkoako landa-eremuan”, Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuaren Lurralde Oreko Zuzendaritzak egina.
- “Gipuzkoako enpresetan genero-berdintasuna eta kontziliazioa sustatzea”, UPV/EHUK Diputatu Nagusiaren Alorrarentzat egina, Etorkizuna Eraikiz programaren esparruan.
- “Gipuzkoako familietan kontziliazioa eta berdintasuna sustatzea. Debagoienari buruzko azterketa”, UPV/EHUK egina.
- “Gipuzkoako enpresetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko politika publikoak eta jardunbide egokiak”, UPV/EHUKo Ekonomia Aplikatua I Sailak egina.



4.5.- KONTRATU PUBLIKOETAN BERDINTASUNARI LOTUTAKO KLAUSULAK TXERTATZEA.

2017an, 193 kontratu egin dira. Haietatik, **170 kontratutan berdintasunerako klausulak txertatu dira** deialdiaren, esleipenaren eta egikaritzearen hainbat fase eta alderditan. Horrek esan nahi du **2017ko foru-kontratuen % 88tan** txertatu direla klausula horiek.

Urteko kontratu guztiekiko proportzioa % 82tik % 88ra igo da 2016tik 2017ra bitarte, eta txertatutako berdintasun-klausulak dituzten kontratuen kopurua ia berdina izan da bi urteetan: 193 kontratuetako 170 2017. urtean, eta 210 kontratuetako 172 2016. urtean. Datu horrek berretsi egin du foru-departamentu guztien kontratazioan berdintasun-klausulen erabilera orokortu eta sistematizatu egin dela.

Foru-departamentuek adierazi dutenez, geratzen den erronka erabilitako klausulen jarraipena hobetzea, emakumeen eta gizonen berdintasunean duten eraginaren neurketa hobetzea eta eragin hori norabide positiboan areagotzea da.

2017an erabilitako klausulei dagokienez, txertatu diren berdintasun-klausulak azpimarratu behar dira, batez ere kontratua **betetzeko berriazko baldintzetan**: zehazki, 135 kontratutan; beraz, kontratuen % 80tan txertatu dira berdintasun-klausulak.

4.6.- DIRU-LAGUNTZETAN BERDINTASUN-KLAUSULAK TXERTATZEA.

2017an, diru-laguntzetarako 105 deialdi egin dira. Haietatik, **diru-laguntzetarako 105 deialditan txertatu dira berdintasun-klausulak**, hainbat fase eta alderditan. Horrek esan nahi du 2017an emandako diru-laguntzen **% 100etan** txertatu direla klausula horiek. Datu horrek berretsi egin du Foru Aldundiaren diru-laguntzetan berdintasun-klausulen erabilera orokortu eta sistematizatu egin dela.

Hala ere, klausulen kalitatea desberdina da. Hori dela eta, klausula horien kalitatea hobetzea (eragin-ahalmen handiko klausulak txerta daitezen) eta haien jarraipena egitea (emakumeen eta gizonen berdintasunean duten eraginaren neurketa hobetu dadin) da geratzen den erronka.

Azpimarratu beharra dago, halaber, berdintasun-klausulak diru-laguntzetarako deialdietan txertatu direla 2017an, batez ere honako fase eta alderdi hauetan: diru-laguntzaren xedean, diru-laguntza lortzeko baldintzetan, balorazio-irizpideetan eta diruz lagundutako proposamena egikaritzeko baldintzetan.

Hitzarmenei dagokienez, 2017an 42 egin dira. Haietatik, **11 hitzarmenetan** txertatu dira berdintasun-klausulak, hau da, urteko **guztien % 26tan**. Erabilitako klausula guztiak hitzartutako proposamena egikaritzeko baldintzetan txertatu dira.

Kontuan hartuta 2015ean ehuneko hori % 33 izan zela (57 hitzarmenetatik, 19tan txertatu ziren berdintasun-klausulak), berdintasun-klausulak dituzten hitzarmenen ehunekoak behera egin du. Hain zuzen ere, beheranzko nolabaiteko joera hori aztertzea, arrazoiak eta zailtasunak identifikatzea eta zuzentzea izango litzateke datozen urteetarako geratzen den erronketako bat.



4.7.- ARAU-GARAPENA: GENEROAK FORU-ARAUEN AURREPROIEKTUETAN, IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN PROIEKTUETAN ETA IZAERA SEKTORIALEKO FORU-PLAN ESTRATEGIKOETAN DUEN ERAGINARI BURUZKO ALDEZ AURREKO EBALUAZIO-TXOSTENA.

2017an, 2/2015 Foru Arauan ezarritakoari jarraikiz, foru-departamentuek landutako Foru Arauen aurreproiektuekin eta izaera orokorreko xedapenen proiektuekin batera genero-eraginari buruzko aldez aurreko bidezko ebaluazio-txostena aurkeztu da lantzeko eta izapidetzeko prozesuan.

Bestalde, *Berdintasunerako Organoa* dagokion departamentu sustatzaileak genero-eraginari buruz egindako aldez aurreko ebaluazio-txostenei erantzuteko Foru Arauak esleitzen dizkion aginduzko egiaztapen-txostenak betetzen ari da.

2017an, departamentuek **aldez aurreko 24 ebaluazio-txosten** idatzi zituzten, eta *Berdintasunerako Organoak* haien aginduzko egiaztapen-txostenak egin zituen. 2016an, berriz, 22 txosten idatzi ziren, eta 2015ean 21.

2017an egindako 24 txostenak honako hauei dagozkie:

- 7 foru-arauri.
- 13 foru-dekreturi.
- 4 foru-aginduri.

2017an genero-eraginari buruzko aldez aurreko 24 txostenak egin zituzten **departamentuak** honako hauek dira:

- *Ogasun eta Finantza Departamentua*: 12 txosten, 7 foru-arauri eta 5 foru-dekreturi buruzkoak.
- *Ekonomia Sustapena, Landa Garapena eta Lurralde Oreko Departamentua*: 7 txosten, 3 foru-dekreturi eta 4 foru-aginduri buruzkoak.
- *Gizarte Politikako Departamentua*: 3 txosten, foru-dekretuei buruzkoak.
- *Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroleko Departamentua*: 2 txosten, foru-dekretuei buruzkoak.

Ikuspuntu kualitatibo batetik, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- Egindako 4 txostenetan, proiektatutako araudia emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez neutroa edo ez-bidezkoa dela jaso da.
- *Berdintasunerako Organoak* arauen aurreproiektuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspuntutik aldatzeko eta hobetzeko proposamenak egin ditu aldez aurreko ebaluazio-txostenei erantzuteko bidezko egiaztapen-txostenetan.
- Departamentuek *Berdintasunerako Organoak* iradokitako eta zazpi arauen aurreproiektuak aldatu eta hobetzera bideratutako neurri zuzentzaileetako batzuk hartu dituzte. Departamentuek hartutako neurri zuzentzaileek arauen aurreproiektuetan honako hauek txertatzea zuten xede: genero-ikuspegi handiagoa, ekintza positiboren bat, sexuaren arabera banatutako datuak biltzeko konpromisoa eta hizkuntzari erabilera ez-sexista emateko konpromisoa.



4.8.- AURREKONTUEN PLANGINTZA ETA KUDEAKETA: GENERO-ERAGINA BERRIKUSI, AZTERTU ETA EBALUATZEA, URTEKO AURREKONTUA ONARTU AURRETIK ETA AURREKONTU-EKITALDIA AMAITU ONDOREN.

2017an, foru-departamentu guztiek erabili dute “Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak (EBA)” aplikazioa, aurrekontuen plangintza eta kudeaketa hobetzeko eta zeharkako foru-politikak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasun-politikak barne) kontuan hartuta egiteko. Horretarako, aplikazio informatiko horrek *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Foru Plangintzari* berariaz lotutako erlantz bat dauka, eta, haren bidez, aurrekontu-programetako ekintzak berdintasunerako urteko programazioaren helburu, adierazle eta ekintzekin lotu daitezke.

Horren bidez, berdintasunaren ikuspuntutik, aurrekontuak onartu aurreko balorazioa hobetu daiteke, baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako programazioaren jarraipena ere, onartutako aurrekontu-programak egikaritzeko fasean. Era horretan, berdintasunaren zeharkakotasuna sustatzen eta bermatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu-ekintza guztietan.

2017an, aurrera egin da, halaber, sistemaren bidez aurrekontu-ekintza guztien jarraipena eta azterketa genero-ikuspegian oinarrituta egiteko erronkan. Hau da, aurrera egin da aurrekontu-ekitaldia amaitu ondoren sistema berdintasunerako aurrekontu-eragin erreala zehazteko erabiltzea ahalbidetuko duen jarraipen informatikoaren prestaketan.

4.9.- LANGILEEN KUDEAKETA: SARBIDEA ETA HAUTAKETA, SUSTAPENA, PRESTAKUNTZA, ORDAINSARIAK, LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA, KONTZILIAZIOA ETA ERANTZUNKIDETASUNA.

2017an arlo honetan garatutako atalen artean, honako hauek azpimarra daitezke:

4.9.1.- Sarbidea eta hautaketa.

2017an, 30 hautaketa-prozesu egin dira. Berdintasunaren ikuspuntutik:

- Prozesu horietarako osatutako 12 hautaketa-mahaietako 11tan, orekatua izan da emakumeen eta gizonen ordezkariak. Haietako 10ek ordezkariak parekide hori baldintzatzen eta bermatzen zuen klausula bat zuten.
- Bi prozesutan, emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako gaiak txertatu dira gaitzerrendetan.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin berariaz lotu gabeko prozesu batean, berdintasun-arloko prestakuntza eta merituak baloratu dira.
- Prozesu batean, emakumeen ordezkariak bultzatzeko klausula bat txertatu da, eremu horretan emakumeen ordezkariak % 40 baino txikiagoa baita.

4.9.2.- Berdintasun-arloko prestakuntza.

Gipuzkoako Foru Aldundiak berak 2017an antolatutako **prestakuntzaren guztizko datuak** honako hauek dira:



- Prestakuntza-orduak, guztira: 5.013 ordu, 380 ikastaro edo prestakuntza-saiotan banatuak.
- Prestakuntzako parte-hartzaileak 2017an, guztira: 3.057 pertsona; 1.853 emakume (guztien % 61) eta 1.204 gizon (% 39).
2016an, 997 emakume (guztien % 65) eta 539 gizon (% 35) izan ziren guztira.
2015an, berriz, 1.022 emakume (guztien % 67) eta 507 gizon (% 33) izan ziren guztira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak berak emakumeen eta gizonen **berdintasunaren arloan antolatutako prestakuntzaren datuak** honako hauek izan ziren:

- Berdintasun-arloko prestakuntzako 117 ordu (prestakuntza-ordu guztien % 2,3), 8 ikastaro edo prestakuntza-saiotan banatuak (ikastaro guztien % 2,1).
2016an, 53 ordu izan ziren (guztien % 3,6), 3 ikastarotan banatuak (guztien % 2,5).
2015ean, berriz, 126 ordu izan ziren, 3 ikastarotan banatuak (guztien % 3,8).
- 2017an, 77 pertsonak hartu dute parte berdintasun-arloko prestakuntza-ikastaroetan (prestakuntza osoko parte-hartzaile guztien % 2,5). Haietatik, 69 emakumeak ziren (guztien % 90), eta 8 gizonak (guztien % 10).
2016an, berriz, 27 pertsona izan ziren (prestakuntza osoko parte-hartzaile guztien % 1,8). Haietatik, 24 emakumeak ziren (guztien % 89), eta 3 gizonak (% 11).
2015ean, berriz, 44 pertsonak hartu zuten parte (prestakuntza osoko parte-hartzaile guztien % 2,9). Haietatik, 38 emakumeak ziren (guztien % 86), eta 6 gizonak (% 14).

Ikus daitekeenez, **2017ko datuek honako alderdi hauek utzi dituzte agerian:**

- 2017an foru-prestakuntzan parte hartu duten emakumeen guztizko kopuruak igoera nabarmena izan du (1.853 emakume) 2016. urtearekin (997 emakume) eta 2015. urtearekin (1.022 emakume) alderatuta.
- Proporzioan, zertxobait behera egin du emakumeen ehunekoak (parte-hartzaile guztiekiko): % 61 2017an, % 65 2016an eta % 67 2015ean.
- Berdintasun-arloko prestakuntza-orduen guztizko kopuruak igoera handia izan du 2017an (117 ordu), 2016. urtearekin (53 ordu) alderatuta, eta 2015eko ordu kopurura (126 ordu) iritsi da.
- Proporzioan, behera egin du berdintasun-arloko prestakuntza-orduen ehunekoak (prestakuntza-ordu guztiekiko): % 2,3 2017an, % 3,6 2016an, eta % 3,8 2015ean.
- Berdintasun-arloko prestakuntza-ikastaroen edo prestakuntza-saioen guztizko kopuruak igoera handia izan du 2017an (8 ikastaro), 2016. urtearen (3 ikastaro) eta 2015. urtearen (3 ikastaro) aldean.
- Proporzioan, behera egin du berdintasun-arloko prestakuntza-ikastaroen ehunekoak (prestakuntza-ikastaro guztiekiko): % 2,1 2017an, % 2,5 2016an, eta % 3,8 2015ean.
- Berdintasunean prestatutako pertsonen guztizko kopuruak igoera handia izan du 2017an (77 pertsona), 2016. urtearekin (27 pertsona) eta 2015. urtearekin (44 pertsona) alderatuta.
- Proporzioan, gora egin du berdintasunean prestatutako pertsonen ehunekoak (% 2,5) 2016. urtearekin (% 1,8) alderatuta, eta 2015eko ehunekora (% 2,9) hurbildu da.



- Berdintasunean prestakuntza jaso duten emakumeen guztizko kopuruak iguera handia izan du 2017an (69 emakume), 2016. urtearekin (24 emakume) eta 2015. urtearekin (38 emakume) alderatuta.
- Proporzioan, gora egin du emakumeen ehunekoak berdintasun-arloko prestakuntza jaso duten pertsona guztiekiko: % 90 2017, % 89 2016an, eta % 86 2015ean. Beraz, gora egin du emakumeen eta gizonen arteko aldeak berdintasun-arloko prestakuntzari dagokionez.

4.9.3.- **Kontziliario Erantzukiderako Foru Plana.**

Azken urte hauetan *Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak* Gipuzkako Foru Aldundiko langileek kontziliarioerako eskatu dituzten baimenei buruz bildutako datuak kontuan hartuta, emakumeen eta gizonen rolen ohiko banaketak bere horretan jarraitzen duela egiazta daiteke. Hau da, teoriarik batzuek zein besteek aukera berdina badituzte ere, emakumeek eta gizonen ez dituzte berdin baliatzen indarrean dauden kontziliario-neurriak.

Ilde horretan, *Kontziliario Erantzukiderako Foru Planak* Foru Aldundiko langileei zuzendutako zenbait ekintza biltzen ditu, ohiko ereduaren transmisioari aurre egiteko eta jarrera eta portaera berriak sustatzeko.

2017an *Kontziliario Erantzukiderako Foru Planaren* barruan egindako ekintzek honako helburu hauek izan dituzte:

- Ba 1 helburua: enpresa erantzukideen komunitate bat sortzeko helburua izango duen eta online ekintzak zein ekintza presentzialak izango dituen plataforma digital bat sortu eta dinamizatzea.
- Ba 3 helburua: estereotipoek gazteen garapen pertsonal eta profesionalean duten eraginari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioko ekintzak egitea. "Gipuzkoa, eredu".
- Ba 8 helburua: Foru Aldundiari erantzukidetasunaren arloan erreferentzialtasun eta trakzio-ahalmen handiagoa ematea.

Langileen kudeaketarekin zuzenean lotutako azken helburu horren barruan, honako ekintza hau egin da:

- Ba 8.6. Denbora eta espazio profesionalaren erabilera malgutzeko neurri gisa, telelanari buruzko plan pilotu bat egitea, egungo baliabide teknologikoetan oinarrituta.

Ekintza horri dagokionez, 2017an lehen **telelan-esperientzia pilotua edo lan ez-presentziala** egin da hainbat foru-departamentutako boluntarioekin. Helburua esperientzia baloratzea eta inplementatu eta zabaltzeko moduko proposamen bat lantzea izan da.

Proba pilotu hori 2017ko ekainetik abendura bitarte egin zen. 23 hautagaik aurkeztu zuten beren burua, eta, haietatik, bost emakume eta lau gizon hautatu zituzten parte hartzeko. Sei hilabetetan, astean hiru egunetan etxean lan egin zuten, eta beste bi egunetan, berriz, era presentzialean. Kasu guztietan, parte hartzeko arrazoiak seme-alaben edota familiako kideren baten zaintza izan zen.

Prozesua izaera esperimentalarekin egin zen, hau da, pertsona eta lanpostu kopuru eta iraupen txiki batetik abiatuta, ondorioak ateratzeko eta Aldundian telelana abian jartzean ager litezkeen ahultasun edo ezusteko orokorragoei aurrea hartzeko. Prozesua ebaluatu ondoren, balantzea oso positiboa izan da, eta, beraz, lan egiteko modu hori norainoko handiago batekin eta era egonkorrean ezarriko da 2018tik aurrera.



Bestalde, kontziliazio erantzunkidea Gipuzkoako gizartearen erronka “erabakigarrietako” bat dela kontuan hartuta, Gipuzkoako 20 enpresa *Etorkizuna Eraikiz* programaren esparruan eta *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana* garatzeko bultzatutako antzeko proiektu pilotu batzuetan parte hartzen ari dira.

Foru-plan horrek hiru zutabe ditu: Gipuzkoako Foru Aldundia bera, Lurraldeko enpresak eta Gipuzkoako herritarrak. Enpresa- eta lan-munduari dagokionez, Gipuzkoako enpresa-sare osoan inplementatuko diren proiektu pilotu horiek garatzen ari diren enpresak berdintasunerako enpresa-sare bat sortzen ari dira Gipuzkoan, elkarrekin Lurraldeko beste enpresa-entitate eta enpresa-erakunde batzuen erreferente eta eragile izan daitezten.

4.10.- GARATUTAKO ALDERDIETARAKO HURBILKETA KUANTITATIBOA

Ehunekoak titulu honen item bakoitzean alde zuzenetik emandako datu eta azalpenen zenbatespen kuantitatiboa dira (informazio gehiago 2.5 puntuan).

Ehunekoa Foru Arauan kapitulu bakoitzean garatzeko jasotako itemen guztizko kopuruan oinarrituta kalkulatu da. Adibidez, “*Berdintasunerako Foru Planaren plangintza, jarraipen eta ebaluazioaren*” kasuan, 2017an landutako itemen ehunekoa % 100 izan dela esan daiteke, urte horretan, “*Berdintasunerako 2017ko programazioarekin*”, urteko plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egin baita.

Foru Arauaren II. Tituluar dagokionez, hurbilketa kuantitatiboak honako parametro hauek islatzen ditu:

III. TITULUA: GENERO-IKUSPEGIA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JARDUERETAN ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU-SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEN JARDUERETAN INTEGRATZEKO NEURRIAK	ZENBATESPEN KUANTITATIBOA		
	2016ko jarraipena 2015-2016an landutako itemak	2017ko jarraipena 2017an landutako itemak	2015-2017an metatua 2015-2017an landutako itemak
Jarraipen-datuak kapituluz kapitulu	%	%	%
<i>Berdintasunerako Foru Planaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa departamentuetan.</i> Foru Arauak urteko programazio bat jasotzen du, hau da, 3 item edo programazio 2017ra arte. Berritasuna 2017an: 2017ko programazioa.	100	100	100
<i>Ordezkaritza eta parte-hartze orekatua Foru Aldundiko eremu eta maila guztietako lan-taldeetan.</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen. Berritasuna 2017an: kide anitzeko zuzendaritza-organoak, kontratazio-mahaiak eta diru-laguntzak, epaimahaiak, kontseiluak eta parte-hartze organoak.	100	100	100



<p><i>Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko informazioaren produkzio eta kudeaketa eta barne- zein kanpo-komunikazioa.</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</p> <p>2017ko berrietasuna: webguneak eta sare sozialak.</p>	100	100	100
<p><i>Genero-ikuspegia txertatuko duten foru-azterlanak eta foru-estatistikak lantzea.</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</p> <p>2017ko berrietasuna: EBA aplikazioaren adierazleak / Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko berariazko azterlanak.</p>	100	100	100
<p><i>Kontratu publikoetan berdintasunari lotutako klausulak txertatzea.</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</p> <p>2017ko berrietasuna: klausulak dituzten kontratuen ehunekoaren igoera eta klausulen orokortzea.</p>	100	100	100
<p><i>Diru-laguntzetan berdintasunari lotutako klausulak txertatzea.</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</p> <p>2017ko berrietasuna: klausulak diru-laguntzetan eta hitzarmenetan.</p>	100	100	100
<p><i>Arau-garapena. Generoak foru-arauen aurreproiektuetan eta izaera orokorreko xedapenen proiektuetan duen eraginari buruzko alde aurreko ebaluazio-txostena.</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</p> <p>2017ko berrietasuna: prozesuaren sistematizazioa.</p>	100	100	100
<p><i>Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa:</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</p> <p>2017ko berrietasuna: EBA aplikazioaren erabilera.</p>	100	100	100
<p><i>Langileen kudeaketa.</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</p> <p>2017ko berrietasuna: sarbidea eta hautaketa, berdintasun-arloko prestakuntza, <i>Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana</i> eta telelan-esperientzia pilotua.</p>	100	100	100

Zenbatespen kuantitatiboaren bidez, honako alderdi hauek ikus daitezke 2017ko jarraipenean:

- Lan sistematizatu, bateratua eta orokorra egin da Foru Arauaren Titulu honetan jasotako arlo guztietan, eta jarraitutasuna eman zaio aurreko urteetan egindako lanari.



- Arlo horietako gehienetan, urtero era jarraituan egin beharreko prozesuak direnez gero, 2017ko funtzioak bete dira, hala nola foru-departamentuen berdintasunerako programazioa, hautaketa- eta balorazio-mahaien osakeran, kontratazio-espedituetan eta diru-laguntzetarako deialdietan berdintasunerako klausulak txertatzea, aurrekontuak eta araudia lantzea eta abar.
- Aurrerapen esanguratsua egin da honako alderdi hauetan: departamentuen berdintasunerako urteko programazioaren garapenaren sakontzea, lantaldeen ordezkariak orekatua, berdintasunerako klausulen txertatzea Foru Aldundiaren kontratazioan eta diru-laguntzetan, genero-eraginaren alde aurreko ebaluazio-txostenak, aurrekontuen kudeaketa eta langileek telelana baliatzeko aukera.
- Nolabaiteko gelditze bat izan da berdintasunerako barneko eta kanpoko informazio eta komunikazioan, berriazko azterlanak eta estatistikak genero-ikuspegiarekin egiteko garaian eta foru-hitzarmenetan berdintasun-klausulak txertatzeko garaian.

4.11.- 2017AN EGINDAKO JARDUNIK ESANGURATSUENAK ETA TITULU HONETAKO ITEMEI DAGOKIENEZ GERATZEN DIREN ERRONKAK.

Laburbilduz, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

EKINTZA ESANGURATSUAK:

→ Departamentuek 2017an Berdintasunerako Foru Plangintza garatzeko programatutako ekintzen % 88 egin dira.
→ Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekaturako klausulek eragin positiboa izan dute kide anitzeko organoetan, epaimahaietan eta abar erabili direnean, bereziki emakumeen eta gizonen berdintasunarekin berriaz lotu gabeko kasuetan.
→ Berdintasun-klausulak 2017ko kontratuen % 88tan eta diru-laguntzen % 100etan txertatu dira.
→ Langileei zuzendutako telelan-esperientzia pilotua, <i>Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana</i> abian jarri izanaren ondorioz.
→ Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntzari lotutako ikastaro, ordu eta parte-hartzaileen zifra absolutuek gora egin dute.

GERATZEN DIREN ERRONKAK:

→ Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekaturako klausulak kide anitzeko organo, epaimahai eta abar guztietara zabaltzea.
→ Berdintasun-klausulak hitzarmenetara zabaltzea, 2017an kasuen % 26tan txertatu baitira.
→ <i>Berdintasunerako Organoak</i> genero-eraginaren alde aurreko ebaluazio-txostenei erantzunez arauen aurreproiektuak berdintasunaren ikuspuntutik hobetzeko proposatutako neurri zuzentzaileak txertatzea, 2017an 24 kasuetako 7tan txertatu ziren bezala.
→ Berdintasun-arloko prestakuntzan parte hartzen duten emakumeen kopuruaren eta gizonen kopuruaren arteko aldea murriztea.



5.- IV. TITULUA: BERDINTASUNAREN SUSTAPENA FORU ESKU-HARTZE ESPARRUETAN

Foru Arauak ez du epe zehatzik ezartzen IV. Tituluan landutako ezein alderditarako, eta, beraz, atal honen jarraipena egiteko, Arauan planteatutako kapituluei, *zenbatespen kuantitatiboari* eta *jardunik esanguratsuenen eta geratzen diren erronken laburpenari* jarraitu zaie.

Kapitulu honetan, 2/2015 Foru Arauaren IV. Tituluan bildutako kapituluaren jarraipena egiten da. Titulu horretan, Foru Arauak aipatzen du foru esku-hartze esparru horiek sustatu behar dutela berdintasuna. Esparru horiek, nolana ere, *Berdintasunerako II. Foru Planaren* honako ildo estrategiko hauei lotuta daude:

- Parte-hartzean oinarritutako demokraziarantz.
- Zainketa duinen eta guztientzakoaren eredu sozialerantz.
- Bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz.
- Bizitzarako ingurune iraunkorrerantz.
- Indarkeria matxistarik gabeko bizitzarantz.

2016an *II Foru Plana Aurre! Foru Plan* berriarekin eta *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plan* berriarekin lotzeko eguneratu eta egokitu zenez gero, IV. Tituluko edukien jarraipena egokitze horren emaitzazko 2017-2019ko Foru Plangintzan oinarrituta egin da.

Foru-departamentuek *Berdintasunerako Plangintza* horretan aurreikusitako ekintzak egin dituzte 2017. urtean, eta, logikoa denez, haien jarraipen-datuak (txosten honen oinarri direnak) bat datoz plangintza horrekin. Plangintza hiru zutabe handitan oinarritu zen, hots, *Berdintasunerako II. Foru Planaren* edukiak zein bi foru-plan berrien edukiak biltzen eta antolatzen dituzten hiru foru-planetan:

5.1.- *Eremu orokorra*; haren helburuak eta ekintzak *Gobernu onarekin* eta *Emakumeen ahalduzuekin* lotuta daude, eta, neurri handi batean, honako hauei lotutako Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Parte-hartzean oinarritutako demokraziarantz.
- Zainketa duinen eta guztientzakoaren eredu sozialerantz.
- Bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz.

5.2.- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*; haren helburu eta ekintzek, neurri handi batean, honako hauei lotutako Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Zainketa duinen eta guztientzakoaren eredu sozialerantz.
- Bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz.
- Bizitzarako ingurune iraunkorrerantz.

5.3.- *Aurre! Foru Plana*; haren helburu eta ekintzek, neurri handi batean, honako hauei lotutako Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Indarkeria matxistarik gabeko bizitzarantz.



5.1.- EREMU OROKORRA: GOBERNANTZA, EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Eremu Orokorrak 33 ekintza biltzen ditu guztira. Ekintza horiek *Gobernu onarekin eta Emakumeen ahalduntzearekin* lotuta daude, eta, beraz, ekintzetako asko foru-departamentu guztientzat komunak diren administrazio-prozesuei lotuta daude.

Prozedura komunei lotutako ekintza horien garapena Foru Aldundiko zuzendaritza eta departamentu guztiei dagokie. Hori dela eta, ekintza bakoitzaren jarraipen zehatza eta berezia egiten da departamentu bakoitzean. Horrela, beraz, **224 departamentu-ekintza** kontabilizatu dira guztira.

Esparru horretan, 2017. urtean, departamentuek:

- 123 ekintza programatu zituzten guztira (eremuko ekintza guztien % 55).
- 116 ekintza egin zituzten guztira, hau da, programatutakoen % 94 (eremuko guztien % 52).
- Egindako ekintzetatik, 107 amaitu zituzten, hau da, 2017rako programatutakoen % 87 (eremuko guztien % 48).
- Egindako ekintzetatik, 9 hurrengo urtean ere garatuko dira, hau da, 2017rako programatutakoen % 7 (eremuko guztien % 4).

Ikus daitekeenez, eremu orokorrek programatutako eta egindako ekintzen kopuru handi samarra dauka. Hori ulergarria da, eremu orokorreko ekintzak 2013. urteaz geroztik garatzen ari den Berdintasunerako II. Foru Planaren jarraipena baitira nolabait ere. Gainera, aurreko urteetako inertzia eta esperientzia baliatu dute.

Bestalde, eremu orokorreko ekintzak departamentu guztiei dagozkie neurri berean. Hortaz, ekintza bera foru-departamentu batzuetan edota guztietan programatu eta kontabiliza daitezke (kontratu eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak sistematikoki txertatzea, adibidez).

Halaber, ikus daiteke programatutako hamar ekintzetatik bederatzi eta erdi egin direla (% 94). Hori oso ehuneko handia da, 2017an programatutako ekintza kopururik handienarekiko ehunekoa baita.

Halaber, oso handia izan da amaitutako ekintzen proportzioa (hamarretik ia bederatzi). Horrek adierazten du alderdi orokorrek (eta, bereziki, departamentu guztientzat komunak diren administrazio-prozedurei lotutakoak) departamentu guztietan finkatuta, orokortuta eta sistematizatuta daudela.

5.1.1.- Jardunik esanguratsuenak

Eremu orokorraren helburuak eta ekintzak *Gobernu onarekin eta Emakumeen ahalduntzearekin* lotuta daude, eta, neurri handi batean, honako ildo estrategiko hauei lotuta dauden Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Parte-hartzean oinarritutako demokraziantz.
- Zainketa duinen eta guztientzako eneredu sozialerantz.
- Bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz.



2017an foru-departamentu guztiek Gobernu Onarekin lotuta egin dituzten jardunik esanguratsuenak jarraipen-txosten honen aurreko ataletan jasota daude. Adibidez:

- 3.1.2 atala.- Gipuzkoako udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoak babesteko diru-laguntzetarako deialdia.
- 3.3.1 atala.- Emakumeek eta gizonen Gipuzkoako lan-merkatuan eta enpresetan duten egoerari buruzko txostenak. Berdintasuna Orain. Kontziliazio erantzunkidearen inguruko kanpaina.
- 3.3.8 atala.- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*
- 4.1.1 atala.- 2017ko berdintasunerako programazioa foru-departamentu guztietan: plangintza, egikaritzea, jarraipena eta ebaluazioa.
- 4.2 atala.- Ordezkaritza eta parte-hartze orekatua Foru Aldundiko eremu eta maila guztietako lan-taldeetan.
- 4.3 atala.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko informazioa eta barne- zein kanpo-komunikazioa.
- 4.4.1 atala.- Berdintasunerako Foru Plangintzaren adierazleak Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuetan (EBA) aplikazioan.
- 4.5 eta 4.6 atalak.- Kontratuetan eta diru-laguntzetan berdintasunari lotutako klausulak txertatzea.
- 4.7 atala.- Foru-departamentuek landutako arauen aurreproiektuen genero-eraginari buruzko alde aurreko ebaluazio-txostenak.
- 4.8 atala.- Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa genero-ikuspegiarekin eta genero-zeharkakotasunarekin, EBA (Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak) aplikazioaren bidez.
- 4.9.3 atala.- Foru Aldundiko langileei zuzendutako telelan-esperientzia pilotua *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* barruan.

2017an nagusiki Berdintasunerako Organoak Emakumeen ahalduntzeari lotuta egindako jardunik esanguratsuenak jarraipen-txosten honen aurreko ataletan jasota daude. Adibidez:

- 3.1.1 atala: *Berdinbidean* programa, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziala.
- 3.2.1 atala: Irungo *Alardezaleak*.
- 3.2.2 atala: GUNEA, Berdintasunerako Foru Kontseilua.
- 3.2.3 atala: elkarte feministen eta emakumeen elkarten proiektu estrategikoetarako diru-laguntzak.
- 3.2.6 atala: Donostiako Emakumeen Etxea.
- 3.3.2 atala: kontziliazio erantzunkidearen inguruko adierazpen instituzionala eta word kafea.
- 3.3.4 atala: "Hitz-ahalduntzea" proiektua.
- 3.3.5 atala: *Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Plana*.
- 3.3.8 atala.- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*.



5.2.- KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDERAKO FORU PLANA

Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planak 34 ekintza ditu guztira. Ekintza horiek zainketen gaia gizartearen muinera eramatea eta erantzunkidetasuna eta kontziliazioa zainketa duinak eta guztientzakoak lortzeko ezinbesteko tresna gisa garatzea dute helburu. Hau da, erakundeen, enpresen eta pertsonen erantzunkidetasuna bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzura egongo den ekonomia bat eta bizitzeko ingurune iraunkor bat lortzeko berme eta baliabidetzat hartzea.

Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren garapena hainbat foru-departamenturi dagokie, eta departamentu horiek planifikatu, programatu eta inplementatu behar dituzte Foru Planeko 34 ekintzak.

Esparru horretan, 2017. urtean, departamentuek:

- 5 ekintza programatu zituzten guztira (Foru Planeko ekintzen % 15).
- 5 ekintza egin zituzten guztira (programatutakoen % 100).
- Egindako ekintzetatik, 4 amaitu zituzten (2017rako programatutakoen % 80).
- Egindako ekintzetako bat hurrengo urtean ere garatuko da (2017rako programatutakoen % 20).

Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana 2017an onartu zen, eta, beraz, hasierako fasean dago eta programatutako ekintzen ehuneko txikia da oraindik; programatutako ekintza kopururik txikiena duen foru-plana da urteko programazioaren barruan.

Programatutako ekintzen % 100 egin dira. Azpimarratu beharra dago, gainera, amaitutako ekintzen ehuneko handia: % 83. Planaren programazioa 2017. urtearen erdialdean egin zenez gero, ahal zen neurrian egokitu zen ekintzak zegoen epean egikaritzeko aukera errealetera, eta hori izan daiteke amaitutako ekintzen ehuneko handiaren arrazoia.

5.2.1.- Jardunik esanguratsuenak

Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren helburu eta ekintzek, neurri handi batean, honako hauei lotutako Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Zainketa duinen eta guztientzakoaren eredu sozialerantz.
- Bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz.
- Bizitzarako ingurune iraunkorrerantz.

2017an egindako jardunik esanguratsuenak jarraipen-txosten honen aurreko ataletan jasota eta *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* inplementazioari lotuta daude:

- 3.3.8, 4.4.1 eta 4.9.3 atalak: *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko* ekintza batzuk onartu eta abian jartzea.



5.3.- AURRE! FORU PLANA

Emakumeek jasaten duten indarkeriari aurreko egiteko *Aurre! Foru Planak 69 ekintza desberdin* ditu guztira. Ekintza horiek oinarrizko lau eremuri lotuta daude: prestakuntza, ikerketa, prebentzioa eta sentsibilizazioa eta arreta.

Departamentu gehienei dagozkie ekintza horiek, eta, bereziki, honako hauei:

- *Diputatu Nagusiaren Alorrari.*
- *Ekonomia Sustapena, Landa Garapena eta Lurralde Orekako Departamentuari.*
- *Gizarte Politikako Departamentuari.*
- *Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuari.*
- *Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroleko Departamentuari.*
- *Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako Departamentuari.*
- *Ogasun eta Finantza Departamentuari.*

Esparru horretan, 2017. urtean, departamentuek:

- 45 ekintza programatu zituzten guztira (Foru Planeko 69 ekintzen % 65).
- 35 ekintza egin zituzten guztira (2017rako programatutakoen % 78).
- Egindako ekintzetatik, 19 amaitu zituzten (2017rako programatutakoen % 42).
- Egindako ekintzetako 16 hurrengo urtean ere garatuko da (2017rako programatutakoen % 36).
- Programatutako 45 ekintzetako 10 ez ziren hasi (2017rako programatutakoen % 22).

Ikus daitekeenez, programatutako ekintzen ia % 80 egin dira, eta ehuneko handia dela esan daiteke, 2017. urtea Foru Plana garatu den lehen urtea izan baita.

Bestetik, hasitako eta amaitutako ekintzen ehunekoa (% 42) eta hasitako eta amaitu gabeko ekintzena (% 36) antzekoak direla ikus daiteke. Beraz, 2017an hasitako eta amaitu gabeko departamentu-jardunen ehunekorik handiena duen berdintasunerako foru-plana izan da.

5.3.1.- Jardunik esanguratsuenak

Aurre! Foru Planaren helburu eta ekintzek, neurri handi batean, honako hauei lotutako Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Indarkeria matxistarik gabeko bizitzarantz.

2017an egindako jardunik esanguratsuenak jarraipen-txosten honen aurreko ataletan jasota daude:

- 3.1.1 atala: *Berdinbidean* programa, gazteen arteko indarkeriaren prebentzioa.
- 3.3.2 atala: *Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erantzun publikoa emateko Protokolo Instituzionala.*
- 3.3.2 atala: "DENOK ZU" kanpaina.



- 3.3.3 atala: “BELDUR BARIK” erakunde arteko programa.
- 3.4.1 atala: Think Tanka, jardunbide egokien bankua, batzorde politiko-teknikoa.
- 3.6.1 atala: *Aurre! Foru Planaren* inplementazioa
- 4.4.1 atala: *Aurre! Foru Planaren* 2017ko programazioa eta programazio horren jarraipena.

5.4.- GARATUTAKO ALDERDIETARAKO HURBILKETA KUANTITATIBOA

Ehunekoak titulu honen item bakoitzean alde zurretik emandako datu eta azalpenen zenbatespen kuantitatiboa dira (informazio gehiago 2.5 puntuan).

Ehunekoa Foru Arauan kapitulu bakoitzean garatzeko jasotako itemen guztizko kopuruan oinarrituta kalkulatu da. Adibidez, *Aurre! Foru Planaren* kasuan, egindako ekintzen (35 ekintzen) ehunekoa Foru Planeko ekintza guztietan (69 ekintzetan) oinarrituta kalkulatu da, eta, beraz, % 51 izan da.

Kapitulu honetan, **ezin da zenbatetsi** 2015-2017ean metatutakoa, edukiak antzekoak izanik ere haien idazkuntza eta antolaketa ez baitatoz bat. Hau da:

- Gaur egun indarrean dagoen *Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintzako* ekintzak (2017ko jarraipena) ez datoz guztiz bat, eta ezin dira zuzenean parekatu *Berdintasunerako II. Foru Planeko* neurriekin (2016ko jarraipena).
- Horren ondorioz, bi jarraipenak bereiz jaso dira, 2015-2017ko metatuan bietako datuak batu gabe.

Foru Arauaren IV. Tituluari dagokionez, hurbilketa kuantitatiboak honako parametro hauek islatzen ditu:

IV. TITULUA: BERDINTASUNAREN SUSTAPENA FORU ESKU- HARTZE ESPARRUETAN 2017ko jarraipena	ZENBATESPEN KUANTITATIBOA					
	2016ko jarraipena		2017ko jarraipena		2015-2017an metatua	
	2015-2016an landutako itemak		2017an landutako itemak		2015-2017an landutako itemak	
Jarraipen-datuak kapituluz kapitulu	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<i>Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintza.</i> <i>Eremu Orokorra</i> (parte-hartzean oinarritutako demokraziarantz, zainketa duinen eta guztientzako eneredu sozialerantz, bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz): 224 departamentu-jardun ditu planifikatuta guztira.	-	-	116/224	52	116/224	52



<p><i>Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintza.</i> <i>Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana</i> (zainketa duinen eta guztientzako eneredu sozialerantz, bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz, bizitzarako ingurune iraunkorrerantz): 34 ekintza ditu planifikatuta guztira.</p>	-	-	5/34	15	5/34	15
<p><i>Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintza.</i> <i>Emakumeek jasaten duten indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Plana</i> (indarkeria matxistarik gabeko bizitzarantz): 69 ekintza ditu planifikatuta guztira.</p>	-	-	35/69	51	35/69	51

Zenbatespen kuantitatiboaren bidez, honako alderdi hauek ikus daitezke **2017ko jarraipenean**:

- Foru-departamentuek era zabal, sistematizatu eta orokorrean egin dituzte *Eremu Orokorreko* eta *Aurre! Foru Planeko* ekintzak.
- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*, berriz, hasierako fasean eta era puntualagoan landu da. Kontuan hartu behar da plana 2017. urtearen erdialdean onartu zela eta, beraz, departamentuek denborei eta epeei dagokionez zituzten aukera errealak hartu behar izan zituztela kontuan plana programatzeko garaian.

Bestalde, **2016ko hurbilketa kuantitatiboa** ezin zaio zuzenean gehitu 2017ko hurbilketari 2015-2107ko metatuan, baina kontuan hartu behar da urte horietan egindako jardunen isla gisa. Nolanahi ere, hurbilketa horrek honako parametro hauek islatu zituen 2015-2016ko jarraipenean:

- *Berdintasunerako II. Foru Planean* parte-hartzean oinarritutako demokraziari dagokionez jasotako 48 neurrien % 62 garatu ziren.
- *Berdintasunerako II. Foru Planean* zainketa duin eta guztientzako eneredu sozialari dagokionez jasotako 34 neurrien % 33 garatu ziren.
- *Berdintasunerako II. Foru Planean* bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiari dagokionez jasotako 40 neurrien % 45 garatu ziren.
- *Berdintasunerako II. Foru Planean* bizitzarako ingurune iraunkorrari dagokionez jasotako 23 neurrien % 6 garatu ziren.
- *Berdintasunerako II. Foru Planean* indarkeria matxistarik gabeko bizitzari dagokionez jasotako 42 neurrien % 68 garatu ziren.

5.5.- 2017AN EGINDAKO JARDUNIK ESANGURATSUENAK ETA IV. TITULUKO ITEMEI DAGOKIENEZ GERATZEN DIREN ERRONKAK.

Laburbilduz, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:



JARDUN ESANGURATSUAK:

→ Departamentuek *Eremu Orokorra* era orokor eta sistematizatuan egiteko programatutako jardunen artean egin direnen eta amaitu direnen ehunekoak handiak izan dira (% 94 eta % 87, hurrenez hurren), eta, gainera, eremu horretako jardunen erdiak baino gehiago (% 55) biltzen dituen programazioarekiko ehunekoak dira.

→ Departamentuek *Aurre! Foru Plana* garatzeko programatutako ekintzak (planeko ekintza guztien % 65) neurri handian inplementatu dira. Egin direnen ehunekoa handia izan da (% 78), eta hurrengo urtean ere garatuko diren ekintza konplexuen ehunekoa % 36ra iritsi da.

→ Departamentuek *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana* garatzeko programatutako ekintzetatik, % 100 egin dira, eta % 80 amaitu. Edonola ere, plan horretako ekintza guztien % 15eko urteko programazioarekiko ehunekoak dira.

GERATZEN DIREN ERRONKAK:

→ Politika sektorialetan, berdintasunaren ikuspegia era sistematizatu eta sakonean txertatzea, politika horiek, administrazio-prozeduretara mugatu gabe, emakumeen eta gizonen berdintasunerako proaktiboak izan daitezten eta lurraldean bizi diren pertsonen bizitzan eragin erreala izan dezaten.

→ Administrazio-prozedurei lotuta dauden *Eremu Orokorreko* ekintzen jarraipen handiagoa egitea eta foru-politika sektorialetan eta emakumeen eta gizonen berdintasunean duten eragina aztertzea.

→ *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko* ekintza gehiago eta konplexutasun eta jarraitutasun handiagoko ekintzak era orokor eta sistematizatuan programatu eta egitea.



6.- XEDAPEN GEHIGARRIAK

6.1.- LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA: GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EGITURAK EGOKITZEA.

Xedapen honek Foru Arauan jasotako egiturak egokitzeko epeak ezartzen ditu. Batzuk aurreko ataletan aipatu ditugu, eta beste batzuk, berriz, atal honetan landuko ditugu lehen aldiz. Horregatik, guztiak laburbilduko ditugu atal honetan:

6.1.1.- *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren langile-premiak*

Lehenengo xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Foru Arau hau indarrean jarri eta **sei hilabeteko epean gehienez**, arau honen 7. artikulua araberaz sortutako *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak* dituen langileen premiei buruzko txosten bat osatuko dute Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunek, organo horri bere funtzioak garatzeko egitura eta baliabide egokienak eman ahal izateko”.

→ Kotsultatu txosten honen 2.1.1 atala.

- “Horrez gain, **bost urtez behin**, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren* premiak eguneratuko dira, bere funtzioak betetzeko orduan unean-unean egitura egokia eduki dezan”.

→ Berrikuspena 2020. urtean egin beharko da.

6.1.2.- *Departamentu Unitateen langile-premiak*

Lehenengo xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Foru Arau hau indarrean jarri eta **sei hilabeteko epean gehienez**, arau honetako 10. artikulua araberaz sortutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako *departamentu-unitateek* dituzten langileen premiei buruzko txosten bat osatuko dute Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunek, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu bakoitzaren eskumenak, funtzioak eta dimentsioak kontuan hartuta, nor bere funtzioak behar bezala garatzeko egitura eta baliabideak bermatzeko”.

→ Kotsultatu txosten honen 2.1.2 atala.

6.1.3.- *Berdintasunerako Organoko eta Departamentu Unitateetako lanpostuen hornidura*

Lehenengo xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Foru Arau hau indarrean jarri eta **urtebeteko epean** gehienez, Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunek beharrezko administrazio-prozedurak izapidetuko dituzte, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak* aurretiko txostena eman ondoren,



Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuetako lanpostuen zerrendaren aldaketa onar dezan, era horretan, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak* eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako *departamentu-unitateek* foru-arau honetan xedatutako funtzioak bete ahal izan ditzaten”.

→ Kontsultatu txosten honen 2.1.1 eta 2.1.2 atalak.

- “Foru-arau hau indarrean jarri eta **hiru urteko epean gehienez** beteko dira sortzen diren lanpostu berriak”.

→ Lanpostuen hornidura 2018ko martxorako egin beharko da gehienez.

6.2.- BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA: FINANTZAKETA

Bigarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Gipuzkoako Foru Aldundiak progresiboki gehituko du, orokorrean, **emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatzera bideratutako aurrekontua**, kudeaketako aurrekontu propioaren % 1eko gutxieneko zenbatekora iritsi arte 2020. urtean”.

Berdintasunerako Organoaren zein foru-departamentuen berdintasunerako foru-politiketara bideratutako aurrekontua kontuan hartuta, **azken urteetako datuak** honako hauek dira:

- 2016ko jarraipena:
 - o Guztizko aurrekontua: 782.601.399 euro
 - o Berdintasunerako foru-politiken aurrekontua: 3.040.161 euro.
 - o Berdintasunerako foru-politikak: guztizko aurrekontuaren % 0,39.
- 2017ko jarraipena:
 - o Guztizko aurrekontua: 779.023.134 euro.
 - o Berdintasunerako foru-politiken aurrekontua: 5.051.278,14 euro.
 - o Berdintasunerako foru-politikak: guztizko aurrekontuaren % 0,65.

→ Aurrekontuaren % 1eko gutxieneko zenbatekoa 2020. urterako lortu beharko da.

6.3.- HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA: FORU ARAUAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

6.3.1. Jarraipen Batzordearen sorkuntza eta Foru Arauaren ebaluazioa

Hirugarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Foru-arau hau behar bezala bete, garatu eta aplikatzen dela egiaztatzeko, eta beharrezkoa bada, foru-arau hau berrikusteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen



Kontseiluak, foru-arau hau indarrean jarri eta **sei hilabeteko epean gehienez**, foru-arauaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea sortzea onartuko du. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako elkarrizketa sozialerako egituran, hain zuzen ere foru-arau honetako 15. artikuluan xedatutakoan, parte hartzen duten ordezkarien % 50ak osatuta egon beharko du batzorde horrek”.

→ Ez da sortu Foru Arauaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea. 2017an, esperientzia pilotu bat egin da GUNEAN (informazio gehiago 3.2.2 puntuan), eta funtsezkoa izan da GUNEAK batzorde horretan izango duen ordezkari zehazteko eta batzordeari egonkortasuna emateko.

6.3.2. Foru Arauaren urteko jarraipen-txostena

Hirugarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Urtero, foru-arau honetan xedatutako neurrien **jarraipenari eta egikaritze-mailari buruzko txostena** osatuko du Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak, eta neurriak proposatuko ditu, foru-arauak erabateko eraginkortasuna izan dezan. Txosten hori Gipuzkoako Foru Aldundiko webgunean argitaratuko da”.

→ Urteko jarraipen-txosten hori 2016an eta 2017an egin da.

6.3.3. Foru Arauaren ebaluazioa

Hirugarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “**Bost urtez behin**, Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak foru-arauari buruzko ebaluazio-txosten bat osatuko du, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietara bidaliko du. Batzar Nagusiek foru-arau hau berritu edo aldatzeko neurri egokienak adostuko dituzte”.
- “Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezko baliabide ekonomikoak ezarriko ditu foru-arauaren ebaluazioa egiteko, material aditua den pertsonaleko parte-hartzea bermatuz”.

→ Lehen ebaluazio-txostena 2020. urtean egin beharko da.

6.4.- 2017AN EGINDAKO JARDUNIK ESANGURATSUENAK ETA XEDAPEN GEHIGARRIEI DAGOKIENEZ GERATZEN DIREN ERRONKAK.

Laburbilduz, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

EKINTZA ESANGURATSUAK

→ Urteko jarraipen-txosten hau egitea.

→ Guztizko aurrekontuaren % 0,65 emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-politikak bultzatu eta garatzera bideratzea.



→ *Berdintasunerako Organoko* plaza berrietarako beharrezkoak diren lanpostuak 2018an aldatu ahal izateko lehen azterketak egitea (horretarako, Foru Arauak urtebeteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita).

GERATZEN DIREN ERRONKAK

→ Foru Arauaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea sortzea (horretarako, Foru Arauak sei hilabeteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita) eta batzorde horrek Foru Arauaren urteko jarraipen-txostena egitea.

→ Premiei buruzko txostena balidatu eta izapidetzea, hala badagokio lanpostuen zerrenda aldatzea (Foru Arauak urtebeteko epea ezartzen du horretarako) eta, hala badagokio, *Berdintasunerako Organon* beharrezkoak diren plaza berrien hornidura egitea (horretarako, Foru Arauak hiru urteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita).

→ Departamentu guztien berriazko premiak aztertzea (eta bidezko txostenak izapidetzea), *Departamentu Unitateetako* plazak sortzeko beharrezkoak diren lanpostuak aldatzea (Foru Arauak urtebeteko epea ezartzen du horretarako), eta plaza horien hornidura egitea (horretarako, Foru Arauak hiru urteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita).



7.- ONDORIOAK

Foru Arauaren kapitulu bakoitzaren jarraipena txosten honen aurreko ataletan azaldu dugula kontuan hartuta, arestian adierazitako guztiaren sintesi/laburpen orokor bat egingo dugu azken atal honetan.

Horretarako, Foru Arauaren titulu bakoitzaren jarraipenaren azken laburpena bilduko dugu ondorio gisa, eta kasu bakoitzean egindako jardun esanguratsuak eta geratzen diren erronkak azpimarratuko ditugu.

Azken ondorio hauetan azpimarratutako jardun eta erronka bakoitzaren inguruko azalpena eta xehetasunak Foru Arauaren Titulu bakoitzean dagokion atalean kontsulta daitezke.

Ondorioetan, bi alderdi bereizi ditugu:

7.1.- 2017an egindako jardunik esanguratsuenak

7.2.- Geratzen diren erronkak

7.1.- 2017AN EGINDAKO JARDUNIK ESANGURATSUENAK

7.1.1.- I. Titulua: Eskumenak, funtzioak, antolaketa eta finantzaketa.

→ Hobekuntza bat emakumeen eta gizonen berdintasunerako gizarte-solaskidetzako egiturei lotutako alderdien 2017ko garapenean eta 2015-2017 aldian metatutakoan.

7.1.2.- II. Titulua: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko politikak

→ Sentsibilizazio soziala, ezagutza eta praktika, zainketak erdigunean kokatzeko: *Kontziliazio Erantzunkiderako I. Foru Plana* landu, onartu eta abian jartzea:

- Gipuzkoako lan-merkatuan eta enpresetan emakumeek eta gizonen duten egoerari buruzko txostenak eta beste azterlan batzuk lantzea, *Etorkizuna Eraikiz* programaren esparruan.
- Genero-estereotipoen buruzko sentsibilizazio-kanpainak:

World Kafea, gizonen eta emakumeen zainketei eta etxeko zereginei eskaintzen dieten dedikazio desberdinaren inguruko kanpaina martxoaren 8an, eta kontziliazio erantzunkideari buruzko bideoa, *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* onarpenaren eta *Etorkizuna Eraikiz* programaren esparruan.
- Enpresetan berdintasuna eta kontziliazio erantzunkidea sustatzeko aholkularitza-zerbitzua enpresentzat, *GipuzkoaLAB* programaren barruan.



→ Emakume migratzaileak agerian uztea: “Hitz-ahalduntzea” proiektua, *Aniztasuneko Bizikidetzarako Planaren* esparruan.

→ GUNEA: Bi talde sortu dira, alde batetik “Indarkeria matxistaren biktimen aitorpena, kalte-ordaina eta eskubideen lehengoratzea”, eta bestetik “Bizitza jasangarria: kontziliazioa, erantzunkidetasuna eta zainketak” lantzeko. Talde horiek gogoeta eta ezagutzen elkartrukea bultzatu dute, eta txosten banatan bildutako bi proposamen landu dituzte. Esperientzia pilotu hori, gainera, Gunearen funtzionamendu-eredua aztertzeko baliagarria izan da.

→ Indarkeria matxistaren aurkako borrokarako foru-politikaren diseinu, jarraipen eta ebaluazioaren koordinazioa. *Emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako Foru Batzorde Politiko-Teknikoa* sustatzea *Aurre! Foru Planaren* esparruan, eta plan hori ezartzea:

- Gazteei zuzendutako berariazko kanpainak eta ikastetxeetako esku-hartzea.
“Beldur Barik” eta “Denok Zu”.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erantzun publikoa emateko Protokolo Instituzionala.
- Think Tank-a:
Indarkeria matxistaren arrazoiak, adierazpenen eta biktimentzako arretaren ezagutzan ikertu eta sakontzeko ildoak identifikatzeko baterako hausnarketarako gunea.
- Indarkeria matxistaren biktimentzako arretari lotutako jardunbide egokien bankua.

7.1.3.- II. Titulua: Genero-ikuspegia Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardueretan eta Gipuzkoako lurralde historikoko foru-sektore publikoko entitateen jardueretan integratzeko neurriak.

→ Departamentuek 2017an Berdintasunerako Foru Plangintza garatzeko programatutako ekintzen % 88 egin dira.

→ Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekaturako klausulek eragin positiboa izan dute kide anitzeko organoetan, epaimahaietan eta abar erabili direnean, bereziki emakumeen eta gizonen berdintasunarekin berariaz lotu gabeko kasuetan.

→ Berdintasun-klausulak 2017ko kontratuen % 88tan eta diru-laguntzen % 100etan txertatu dira.

→ Langileei zuzendutako telelan-esperientzia pilotua, *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana* abian jarri izanaren ondorioz.

→ Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntzari lotutako ikastaro, ordu eta parte-hartzaileen zifra absolutuek gora egin dute.



7.1.4.- IV. Titulua: Berdintasunaren sustapena foru esku-hartze esparruetan.

→ *Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza Nagusia, Berdintasunerako Organoarekin batera eta Etorkizuna Eraikiz programaren eta Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren esparruan, "Enpresetan genero-berdintasuna eta kontziliazioa sustatzea" proiektu pilotua zuzentzen ari da, eta berriazko esku-hartze eredu bat aplikatzen ari da Lurraldeko erreferentziatzko 20 enpresatan.*

→ *Funtzio Publikoko Zerbitzuak telelan-esperientzia pilotua sustatu eta garatu du Gipuzkoako Foru Aldundian.*

→ *Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko berriazko ikerlanak eta azterlanak argitaratu dira, hala nola "Emakumeen eta gizonen desberdintasun sozioekonomikoak Gipuzkoako landa-eremuan", "Gipuzkoako enpresetan genero-berdintasuna eta kontziliazioa sustatzea", "Gipuzkoako familietan kontziliazioa eta berdintasuna sustatzea. Debagoienari buruzko azterketa" eta "Gipuzkoako enpresetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko politika publikoak eta jardunbide egokiak".*

7.1.5.- Foru Arauaren xedapen gehigarriak

→ Urteko jarraipen-txosten hau egitea.

→ Guztizko aurrekontuaren % 0,65 emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-politikak bultzatu eta garatzera bideratzea.

→ Berdintasunerako Organoko plaza berrietarako beharrezkoak diren lanpostuak 2018an aldatu ahal izateko lehen azterketak egitea (horretarako, Foru Arauak urtebeteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita).

7.2.- GERATZEN DIREN ERRONKAK

7.2.1.- Foru Arauaren I. Titulua

→ 2015ean idatzitako langile-premiei buruzko txostenetan zenbatetsitako premiak txertatzea eta egokitzea, Foru Arauan jasota dauden Berdintasunerako Organoaren eta Departamentu Unitateen egitura-baliabideei dagokienez (egikaritzeko hiru urteko epea 2018ko martxoan amaituko da).

→ 2017an landu diren *Berdintasunerako Organoaren* funtzioen kopuruak izan duen beherakada zuzentzea, eta, beraz, datozen urteetan funtzioen garapen metatua areagotzea.



7.2.2.- Foru Arauaren II. Titulua

→ II. Tituluko 24 funtzioetatik oraindik hasi ez diren 4ak lantzea (informazio gehiago 3.6.2 atalean).

7.2.3.- Foru Arauaren III. Titulua

→ Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekaturako klausulak kide anitzeko organo, epaimahai eta abar guztietara zabaltzea.

→ Berdintasun-klausulak hitzarmenetara zabaltzea, 2017an kasuen % 26tan txertatu baitira.

→ *Berdintasunerako Organoak* genero-eraginaren alde aurreko ebaluazio-txostenei erantzunez arauen aurreproiektuak berdintasunaren ikuspuntutik hobetzeko proposatutako neurri zuzentzaileak txertatzea, 2017an 24 kasuetako 7tan txertatu ziren bezala.

→ Berdintasun-arloko prestakuntzan parte hartzen duten emakumeen kopuruaren eta gizonen kopuruaren arteko aldea murriztea.

7.2.4.- Foru Arauaren IV. Titulua

→ Politika sektorialetan, berdintasunaren ikuspegia era sistematizatu eta sakonean txertatzea, politika horiek, administrazio-prozeduretara mugatu gabe, emakumeen eta gizonen berdintasunerako proaktiboak izan daitezzen eta lurraldean bizi diren pertsonen bizitzan eragin erreala izan dezaten.

→ Administrazio-prozedurei lotuta dauden *Eremu Orokorreko* ekintzen jarraipen handiagoa egitea eta foru-politika sektorialetan eta emakumeen eta gizonen berdintasunean duten eragina aztertzea.

→ *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko* ekintza gehiago eta konplexutasun eta jarraitutasun handiagoko ekintzak era orokor eta sistematizatuan programatu eta egitea.

7.2.5.- Foru Arauaren xedapen gehigarriak

→ Foru Arauaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea sortzea (horretarako, Foru Arauak sei hilabeteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita) eta batzorde horrek Foru Arauaren urteko jarraipen-txostena egitea.



→ Premiei buruzko txostena balidatu eta izapidetzea, hala badagokio lanpostuen zerrenda aldatzea (Foru Arauak urtebeteko epea ezartzen du horretarako) eta, hala badagokio, *Berdintasunerako Organoan* beharrezkoak diren plaza berrien hornidura egitea (horretarako, Foru Arauak hiru urteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita).

→ Departamentu guztien berariazko premiak aztertzea (eta bidezko txostenak izapidetzea), *Departamentu Unitateetako* plazak sortzeko beharrezkoak diren lanpostuak aldatzea (Foru Arauak urtebeteko epea ezartzen du horretarako), eta plaza horien hornidura egitea (horretarako, Foru Arauak hiru urteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita).

--

Donostia, 2018